



BIZIAN GORA



Jaungoikoak bedeinkatu gaizala!



Jaungoikoak bedeinkatu gaizala!

A. Martzel Andrinua

(B)



9 788483 252024

6



BIZIAN GORA

Bedeinkatua Zu, Jauna,
ona zaralako!

Bedeinkatua zu... *Jon*

Jaunak maite zaitualako!

Orain eta beti zu eta ni

“Jaungoikoak bedeinkatu gaizala!”

A. Naitzel

Jaungoikoak bedeinkatu gaizala!

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.*

© Ibaizabal argitaletxea, 1998
ISBN: 84-8325-202-3
Legezko gordailua: BI-2589-98
Inprimategia: R. G. M.

A. Martzel Andrinua

Jaungoikoak bedeinkatu gaizala!

Azala: *Hilario Urkia*
Juan Carlos Landa
Marcos San Blas

Irudiak: *Javier Erostarbe*
Juan Sanchez
Hilario Urkia

*Barrero nator zure ondora,
o adiskide leiala,
zuri bihotzez eskeindu nabirik
nire opari apala.
Zenbat gorroto, zenbat hasarre,
hau egoera petrala!
Gaurtik alkarri jarri daiogun
esku ta bihotz zabala,
alkarren alde otoi eginaz:
"Jaunak bedeinka gaizala".*

A. Martzel



BEDEINKATU

“Bedeinkatu” dinogunean, zer esan nahi dogu? Zer edo nor bedeinkatu? Eta zetarako? Zelango sinismenak eta itxaropenak eraginda? Beste arlo askotan lez, hemen ere sinismen-bidea eta egin-bidea argitu eta zuzendu beharra dogu. Liburu Santuetara joten badogu, lehenengo eta behin, Jainkoa goratzea da, Bera maitagarria dalako. Itun Zahar eta Barrian mila lekutan agiri da otoizkera hau Jainko Herriaren aho-bihotzetan. Jesus Bera dogu eredu eta jarraibide: “Bedeinkatzen zaitut, Aita...” (Mt 11, 25).

“Bedeinkatzea”, baita ere, Jainkoaren aurrean laguntza-eske jartzea da. Berez maitagarri dan Jainko hori gutaz

maitakorra ere badalako, ezin-esanabala mesede egiten deuskulako; batzutan geuk nahi dogun erara, eta bestetan uste ez dogun erara, baina beti ondoen jakun erara, nahizta geuk ulertu eta neurtu ezin. Honetan ere Jesus dogu jarraibide: umeak, ogi-ardauak, gaixoak, etabar **bedeinkatu** obi ebazan.

Badira jokaera eta jarkera oker bi arlo honetan, aztertu eta zuzendu beharrekoak.

- Herri erlijiotasunak sarri erabilten dau bedeinkapen-otoizkera hau, maitekor eta ongile sinisten dauan Jainkoari bere eskuarteko gauzak zuzendu eta onuragarri bihurtu dakiozala eskatuz. Horretarako santuak, promesak, etabar jartzen deutoz bitarteko.

Gebienetan **bedeinkapena** abadeak zuzentzen dau. Eta abal dala, egoki da, eta batzuetan beharrezko. Baina bedeinkapen arruntak diranean, edozein kristau laiko heldu batek zuzendu daike.

- Bada beste bedeinkapen jokera bat, gora begira egiten dana, behekoak ez ikusteko moduan, arpa eta guzti, etenbarik Jainkoari goraka. Goxo-goxo eta luze-luze egin obi dira. Eta bihotz-betekada ederrak izan obi dira.

Jesusen bidea hartu eta jarraitzea dagokigu guri bere jarraitzaileoi: Danen gainetik Aita goratu (**bedeinkatu**), Bera ona dalako; eta gure beharizanetan bere babespean jarri (**bedeinkapena** eskatu) ongile dalako. Beraz, otoizkera biok bateratu daitekez **bedeinkapenok** egiterakoan: Jainkoa goratu eta lagundu gaizala eskatu.

Honetarako leku, lagun eta giro egokiak aukeratu eta aurrez prestatu behar dira. **Bedeinkapena** otoitzaldia da, sakramentu-antzekoa dala dinosku Eleizak, Jainkoaren Presentziari leku emonaz. Bestela, hobe ez egitea. Dana gogotan hartuta, luze-laburrak, etabar egokitu abal danik ondoen. Jaunaren Presentzia adieraziteko egoki datoz ezaugarri batzuk: argia, biblia, ur

Jaungoikoak bedeinkatu gaizala!

bedeinkatua, etabar. Batez ere, gurutzea da ezaugarririk bereziarena. Kristau talde txo bat alkartzea da onena, dana danen artean prestatu eta alkarrean otoitzaldia zuzentzeko.

Ikusten danez, bedeinkapen bakoitzean, balan nabiz bolan egin, hiru alderdi bonek kontuan izan behar dira: aurrez-aurre dogun Jainkoa pozez eta eskerronez goratzea (bedeinkatzea), eskuartearen dogun bedeinkapengaita erabiliko dogunon gainera laguntza eskatzea eta otoitzaldian parte izan garean guztiok zerbaitetan lotuta gelditzea.

Eta abal dan guztia egin, **bedeinkapenak** ez daiala hartu magia usainik, ez gizarte-obitura butsaren antzik, ezta Jainkoa eta santuak behar ez dan lekuan sartu-nabirik. Sarturik gagozanok —geu eta geure gauzak—Jaunak bedeinkatu gaizala, gauza danakaz eta danen gainetik Bera zerbidu daigun.

A. Martzel

Liburu hau egoki erabilteko argibideak

SARRERA

Atal hau “Bedeinkapen” bakoitzaren harian jartzera konbidatzeko da: alkartu diranak agurtu eta otoitz giroan sartzen laguntzeko.

JAUNAREN BERBEA

Gure bizitzako egoera bakoitzean
—ilun nahiz argi izan—
aurrez-aurre dogun
Jaungoikoaren presentzian
jartzeko da,
bere Berbea entzuteko
barrua edegiz.

Luzeagoa nahiz laburrago egin,
norberak aukeratu begi.



ESKERTZEN ZAITUGU

Jauna beti daukagu gu eskubeteen bedeinkatzen; hasi gaitezana, ba, lehendik hartutakoakaitik eskerrak emonaz, bere bihotz haundi-zabala autortuz.



ESKATZEN DEUTSUGU

Jaunaren laguntza eskatzen dogu uste osoz alkar-otoitzean, batez ere, geure gainera argia, adorea, eskuza-baltasuna, etabar. Gehienbat, otoitzaldian partaide diranen alde.

GURE AITA...

Hor dozu *Gure Aita* esker-eskari bikainena, Jesus Beraren bihotz-ahotik urtendakoa.

OTOITZA

Ondorengo otoitzaz burutzen da, "Bedeinkapen" hartzaile izan garanok banatzaile ere izan gaitezala eskatuz.

AGURRA

"Bedeinkapen" otoitzaldia amaitu da, orain ekintzaldia hasten da: bedeinkatu dogun zer hori ezin daiteke edozelan erabili.

"Bedeinkapen" osoaren laburpena eta luzapena da, eskatu dogunagaz geure buru-bizitza lotuaz.

OHAR OROKORRAK

1. "Eskertzen" eta "Eskatzen" kantuz nahiz esanez egin daitekez. Danak dauke doinu bardina; hurrengo orrialdean daukazu.
2. Otoitzaldia aurretiz prestatzea beharrezkotzat jotzen dogu: mahaitxo bat, kandela bat, ur bedeinkatua, loretxo batzuk...
3. Ahal dala, otoitzaldian beste batzuk ere eskuartu daiela.

DOINUA



1. Zu- re au- rre- an fe- dez, Es- ker- tzen zai- tu-
2. Be- dein- ka- tu i- ru- di hau, Es- ka- tzen deu- tsu-



- gu. An- dra Ma- ri- a la- gun, Es- ker- tzen zai- tu-
gu. Gu e- re be- dein- ka- tu, Es- ka- tzen deu- tsu-



- gu. I- ru- di ho- nen bi- dez, Es- ker- tzen zai- tu-
gu. E- moi- gu- zu ba- ke- a, Es- ka- tzen deu- tsu-



- gu. Zu- re la- gun- tza- gai- tik, Es- ker- tzen zai- tu-
gu. Be- har do- gun guz- ti- a, Es- ka- tzen deu- tsu-



- gu. Zu- re la- gun- tza- gai- tik, Es- ker- tzen zai- tu- gu.
gu. Be- har do- gun guz- ti- a, Es- ka- tzen deu- tsu- gu.

1

**ANDRA MARIAREN IRUDIAREN
BEDEINKAPENA**

Ondo etorriak!

Andra Mariaren irudi eder honen aurrean alkartu gara. Maria, Jesus Gure Jaunaren Ama gogoratzen deusku, bere bidez etorri jakun Jesus gugana; bere eskuetan itzi ginduzan Gurutzetik. Irudi hau izan bekigu, fedez begiratzan dogunoi, indar eta itxaropen-iturri. Jaunaren Berbeak argitu gaizala.

“Elisabetek deadar haundi bat eginik,
hauxe esan eban: «Bedeinkatua zu
emakumeen artean eta bedeinkatua zure
sabeleko frutua. Nor naz ni baina, nire
Jaunaren Ama etorri dakidan? Izan ere,
zure agurraren berbotsa nire belarrietara
etorriaz batera, umea sabalean pozez
saltoka hasi jat. Zorionsua, Jaunaren
izenean esan jakozanak beteko zirala
sinistu dauana!»”

(Lukas 1, 42-45).



ESKERTZEN ZAITUGU

Zure aurrean fedez – *Eskertzen zaitugu*
Andra Maria lagun – *Eskertzen zaitugu*
Irudi honen bidez – *Eskertzen zaitugu*
Zure laguntzagaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinkatu irudi hau – *Eskatzen deutsugu*
Gu ere bedeinkatu – *Eskatzen deutsugu*
Emoiguzu bakea – *Eskatzen deutsugu*
Behar dogun guztia – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

**On guztien iturburu zaitugun Aita
Jaungoikoa! Andra Mariaren gomuta-
garri hau eskeintzen deutsugu. Maria,
zure Semearen eta gure Amaren
bitartez, bedeinkatzen zaitugu eta
BEDEINKATU gaizuzala eskatzen deu-
tsugu. Bera begiz ikusten dogun
bakoitzean, Zeu eta hurkoa bihotzez
maitatzera eroan gaizala.**

AGURRA

Senideok: bedeinkapen honen graziaz,
geuk ere bedeinkapen ugari banandu
daiguzala gabiltzan lekuetan. Hemen
geratzen jaku bidelagun gure Amaren
irudia. Ondo ibili!

2

JAN-EDARIEN BEDEINKAPENA

—*San Blas egunez*—

Egunon, kristau anai-arrebok!

Santuak bitarteko lagun zintzoak doguz Jaunaren aurrean, geure beharrizanetan Haregandik laguntza ugariak eskuratzeko. Gaur San Blas dogu, eta ezta-rriko gatxetik zaindu gaizala eta janari-edariok bedeinkatu daizala eskatzen dogu. Jaunaren Berbea entzun daigun gogo biziz.

“Entzun eidazue guztiok eta ulertu! Kanpoan ez dago ezer, gizonagan sartu eta loitu daikenik; gizonagandik urteten dauanak, bai, horrexek loitzen dau gizona”

(Markos 7, 14-15).



ESKERTZEN ZAITUGU

Janari honeekaitik – *Eskertzen zaitugu*

Daukagun lanagaitik – *Eskertzen zaitugu*

Geure biziagaitik – *Eskertzen zaitugu*

Zaindu gaituzulako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Gatxetik zaindu gaizuz – *Eskätzen deutsugu*

Bedeinka janariok – *Eskätzen deutsugu*

Danentzat lanbidea – *Eskätzen deutsugu*

San Blas lagun dogula – *Eskätzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Zure Ebanjelioagaitik odola ixuri eban Blas santuaren gomutaz santutu dozu egun hau, Jauna. Onartzen dozu bere laguntza gure alde, batez ere, eztarriko minak kentzeko emon deutzazun grazia. Zure fededunok dakartsuezan jan-edariok BEDEINKATU eta santutu daizuzala eskatzen deutzugu. Eta eurok hartzen dabean guztiak, gorputz eta arimako gatx guztietatik aldendu eta osasun bete jaritxi daiela.

AGURRA

Senideok: San Blas eguneko ohitura on hau barriztau dogunok, Jaunaren laguntzaz eta gure izerdiz lortzen doguzan ondasunak alkarbananduz bizi gaitezala, Jaunagandik hartutako bedeinkapenen ezaugarri izan daitezcan.

3

JATETXEAREN BEDEINKAPENA

Senideok:

Egun pozgarri honek alkartu gaitu hemen, gure adiskideok jatetxe hau egokitu eta zerbitzurako edegiten dabela-eta. Eurokaz batera, Jaunari eskeinduz gainera, bere bedeinkapen-grazia eskatzen deutzugu uste osoz eta apaltasunez. Jaunaren Berbea entzun daigun, Bera ere geure arteko eginaz.

“Jesus Pedroren etxera heltzean, honen amaginarreba ohean ikusi eban, sukarrak.

Eskuan ikutu, eta sukarrak itzi egin eutson; eta andrea jagi egin zan eta zerbitzen hasi jaken”

(Mateo 8, 14-15).



ESKERTZEN ZAITUGU

Osasun-lanagaitik – *Eskertzen zaitugu*

Lan-frutu honegaitik – *Eskertzen zaitugu*

Lagun barriakaitik – *Eskertzen zaitugu*

Zure laguntzagaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka jatetxe hau – *Eskatzen deutsugu*

Eta bere jabeak – *Eskatzen deutsugu*

Zaindu zerbitzariak – *Eskatzen deutsugu*

Ta batuko diranak – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Gure artean bizitzera jatsi zinan Jesus Jauna: lagunarteko ostatua gogoko izan jatzun munduan; zatoz, eta eskuzabalez BEDEINKATU eizuz jatetxe honen jabeak eta zerbitzariak. Bertan alkartuta jan-edango dabena, anai-arreba lez, onartuak eta zerbiduak izan daitezala. Gorputzez indarbarrituta eta gogoz bizipozez beterik urten daiea.

AGURRA

Adiskideok: Jaunak bedeinkatu gaitu geu eta eskuarteko lan eder hau. Bedeinkapenaren frutu izan dadila hemendik zabalduko dan bizi barria eta pozezko alkarbizitza. Egun on bat izan deigula, Jaunaren izenean.

4

GAIXOAREN BEDEINKAPENA

Ondo etorriak, Jaunaren izenean!
Bizirik dagoan edozein dago
gaixorik edo gaixotzeko bidean.
Geure bizitzaren kendu-ezineko
atal bat da gaixotasuna. Eta
pertsona gaixoa bedeinkagarria
da, beste inor baino areago;
Jaunak gehien maite dauana, eta
bere lekuan laguntza-eske ipin-
ten jakuna. Jesusen izenean
alkartuta, eta gaixo honegaz bat
eginda, otoi egin daigun, Jauna-
ren bedeinkapenak eskatuaz.
Jaunaren Berbeak lagundu
deiskula.

“Ilunabarrean, edozetariko gatxez jotako
gaixoak eukezanak, Jesusi ekarten
eutsoezan; eta Honek, bakoitzari gainean
eskuak ezarririk, osatu egiten ebazan”

(Lukas 4, 40).



ESKERTZEN ZAITUGU

Jainko Gizon egina – *Eskertzen zaitugu*
Gaixoen lagun ona – *Eskertzen zaitugu*
Gugaitik hil zinana – *Eskertzen zaitugu*
Geugaz zagozalako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Jauna, gaixo hau poztu – *Eskatzen deutsugu*
Bere bihotza jaso – *Eskatzen deutsugu*
Nekeminak arindu – *Eskatzen deutsugu*
Ahal bada, osatu – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Gure Salbatzaile zaran Jauna: osatu eizuz Espiritu Santuaren graziaz gaixo honen gatzak, gozatu bere zauriak, parkatu bere pekatuak, kendu oinaze-min guztiak; eta, zure bihotz onean, emoiuzu gorputz-arimetako osasun betea. Maite dogun gaixo hau BEDEINKATU daizula eskatzen deutsugu, zure errukiaren laguntzaz osatuta, bere bizitzako eginkizunetara bihurtu dadin.

AGURRA

Adiskideok: Jesusen izenean eskatu dogu gaixo honen alde. Poztu dau Jaunaren Presentzia bizigarriak, indarbarritu dau gure hurtasunak. Otoitzean lagun izan gakiozanok, bestelako zerbitzioetan ere bere lagun zintzo agertu gaitezala. Egitekorik onena egin dogu, Jaunaren Izenean.

5

EZKONBARRIEN BEDEINKAPENA

Jaunaren bakea eta grazia izan dadila beti gurekin!

Ezkontza beti egon da lorez eta jantzi dotorez apainduta, eta haundikiro ospatzen dogu. Izan ere, ezkontzea giza bizitzan aurrera-pauso garrantzitsua da. Ezkonbarrien zorionak eta askotariko goralpenak eskeintzea legezko da. Gaur ezkonbarriokaz alkarturik, Jaunari euren alde bedeinkapen sendoa eskatzen deutsagu. Jaunaren Berbearen argiak argitu gaizala.

“Nire aginduak beteten badozue, nire maitasunean iraungo dozue, Nik neure

Aitaren aginduak beteaz Haren maitasunean irauten dodan lez. Hau guztia nire poza zuengan izan daizuen esan deutsuet, eta poz hori bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maite daizuela alkar Nik maite izan zaituedan

lez. Ez deutse inork maitasun

haundiagorik adiskideei, bere burua euren alde emoten dauanak baino. Zuek nire adiskide izango zaree, Nik aginduten deutsuedana egiten badozue”

(Joan 15, 10-14).



ESKERTZEN ZAITUGU

Lagun bion pozetan – *Eskertzen zaitugu*

Euron ezkontzagaitik – *Eskertzen zaitugu*

Senideok batera – *Eskertzen zaitugu*

Zorionak opatuz – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka ezkontza hau – *Eskatzen deutsugu*

Zoriontsu egizuz – *Eskatzen deutsugu*

Frutu ederrez bete – *Eskatzen deutsugu*

Izan Zeu bidelagun – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Gizona bihotz onez egin ondoren, maila miragarri horretaraino jaso dozun Jaungoiko Ahalguztiduna! Senar-emazteen maitasuna zeure maitasunaren irudi egin dozu. Maitez egin dozuna, maitasun-legera deitzen dozu beti, zeure betiereko maitasunean sartu daizun. Zuri eskatzen deutsugu orain, Jauna, ezkonbarriok **BEDEINKATU daizuzala, sinismenean zintzo iraun daien; eta maitasun bakarrean josirik, euren bizitza zuzenagaitik ezagutuak izan daitezala.**

AGURRA

Benetan zoriondu doguz ezkonbarriok eta eurekaz batera izan gara otoitzean. Batera hasi daben bizitza barri honetan izan gaitetzala euren lagun zintzo, behar daben guztian lagunduz. Beti aurkitu daiela gugan hurtasuna eta laguntza zintzoa.

6

UME JAIOBARRIAREN BEDEINKAPENA

Senideok:

Nor ez poztu udabarrian, lore barriz baztarrak dotoretzean? Hara ba: lorerik zoragarriena umetxo jaiobarria. Jaiobarria, bere txikitasunean, zein haundia dan! Jainkoaren antzeko. Lehenengo eta behin, zorionak aita-amei, aitita-amamei eta senide guztiei! Eta ondo etorria, jaiobarriaril! Ume jaiobarria bai dala bedeinkagarria! Bere lehenengo irripartxoekaz bat egin daiguzan gure bedeinkapen eta otoitzak.

“Jesusen gurasoak, legeak agintzen dauana betetzeko asmoz, jauretxean sartzerakoan, Simeonek umea besoetan hartu eta Jaungoikoa bedeinkatu eban”

(Lukas 2, 27-28).



ESKERTZEN ZAITUGU

Ume barri honegaitik – *Eskertzen zaitugu*
Ama ta aitarekin – *Eskertzen zaitugu*
Zorionez beterik – *Eskertzen zaitugu*
Danon Aita-Ama Hori – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Hartu ume barri hau – *Eskatzen deutsugu*
Zaindu osasun, bakez – *Eskatzen deutsugu*
Bedeinka bere ama – *Eskatzen deutsugu*
Gu danok bete pozez – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Haundia zara, Aita Jainkoa, ume txikiarentzat bere aita-amak haundiak diranez! Jaiobarriaren lehenengo negar eta irribarretxoen soinura, bedeinkatzen zaitugu eta **BEDEINKATU** Zeuk eskuzabalez pozez/bete gaituan umetxo hau. Eta beragaz batera, gu guztiok ere, zeure seme-alaba lez, bedeinkatu gaizuz. Eskerrik asko, ume barriaren sari eder honegaitik!

AGURRA

Senideok: ume jaiobarriak danoi eragin deusku, danok pozez bete gaitu. Potxolo txikia beti da maitagarria. Guztiok dogu, bere gurasoekin batera, bizi-lore eder hau ondo zaintzeko ardurea. Gure artean bizipoz eta bakearen giro gozoan hazi daitela gorputzez eta zentzunez.

7

**UMEDUN DAGOAN AMA BATEN
BEDEINKAPENA**

Egunon, guztioi!

Munduan gizakiak egin daikenik haundiena eta ederrena bizi barria sortzea da. Ume barriagan, gizaki dalako eta beste barik, beragan dago Jauna. Horregaitik alkartzen gara gaur hemen, bere ondoan, beragaz batera Jainkoa goratzeko eta bere alde laguntza eskatzeko.

“Une haretan Espiritu Santuz beterik geratu zan Elisabet eta goraka esan eban: «Bedeinkatua zu emakume guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko frutua! Nor naz ni, nire Jaunaren Ama ni ikustera etorteko? Zure agurra nire belarrietara heldu orduko, pozez taupadaka hasi jat umea sabelean. Zorionekoa Zu, Jaunak esan deusuna beteko dala sinistu dozulako!»”

(Lukas 1, 41-45).



ESKERTZEN ZAITUGU

Bizi barri haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Amaren pozagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Sendi osoarekin – *Eskertzen zaitugu*
Aita zaitugun Hori – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUSUGU

Zaindu bizi barria – *Eskatzen deusugu*
Zeuk lagundu amari – *Eskatzen deusugu*
Hartu bien ardura – *Eskatzen deusugu*
Bedeinkatu egizuz – *Eskatzen deusugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Agortu-ezineko bizi-iturri zaitugun Aita Jainkoa! Zeuk bedeinkatu dozu senar-emazte bikote hau ezkontzako sakramentuz, eta frutu barri baten esperantzaz pozez bete dozuz. **BEDEINKATU** ama une zoriontsu baizen neketsu honetan. Eta bizi barriaren itxaropenez dagoan hau, jaiobarriaren pozez saritu eizu. Ume eta guraso zeure aitetasunez bedeinkatu eta babestu eizuz.

AGURRA

Senideok: Jaunaren maitasunaren ezaugarri baten aurrean gagoz. Geure biziagaitik esker onekoak izan gaitezala. Eta erea datorren guztian, biziaren alde jokatu daigula. Ume barriaren zain dagozan gurasoak izan daiela gure otoitzen eta beharrezko zerbitzuen laguntza. Ondo izan!

8

GAZTE MAITEMINDUEN BEDEINKAPENA

Senideok:

Bizitza etenbako bidean aurrera eta aurrera doa. Eta umearoak gaztearoa dakar, amets eta lorez apaindurik. Nonahi bizipoza, nonahi bizi barria kimu barriz lehertzen. Gure gaztetxo honeek ere udabarriko bizi pil-pilean, maiteminez lehertzen agiri jakuz. Maitasunaren irakina borbor. Euren poz eta maitasun eztitan geuk ere partaide izan nahi dogu, eta eurekin batera Jainkoa bedeinkatu eta bere laguntza eskatu.

“Maitasuna eroapen haundikoa da, eta bihozbera; ez dau bekaizkeriarik, ez haundiusterik, ez harropuzkeriarik.

Ez da lotsabakoa, ez berekoia, ez hasarrekorra; kaltea ez dau gogoan hartzen. [...]

Maitasunak dana parkatzen dau, dana sinisten, dana itxaroten, dana ondo eroaten”

(1 Korintoarrei 13, 4-5.7).



ESKERTZEN ZAITUGU

Bizitzaren Jainkoa – *Eskertzen zaitugu*

Gaztetxo biokaitik – *Eskertzen zaitugu*

Bion maiteminetan – *Eskertzen zaitugu*

Guztiok poz betean – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Gazteokin batera – *Eskatzen deutsugu*

Zaindu egizuz bakez – *Eskatzen deutsugu*

Alkar-maitasun garbiz – *Eskatzen deutsugu*

Biok bat-egin arte – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Egiazko maitasun guztiaren iturburu zaitugun Jainkoa! Zeuk biztu dozu gazte bion bihotzetan alkar-maitemina-
ren sua. Jagon eizuz maitasunaren kaltezko diran gatxetatik; alkar ezagutuz eta onartuz, joan daitezala alkar osotuz. **BEDEINKATU** eizuz eskuzabalez, maitasunaren berotasunean Zeu ezagutu eta aurkitu zaiezan.

AGURRA

Maitemindurik dagozan gaztetxo bi honeen pozetan alkartu gara. Gauzarik ederrenak eskatu doguz euren alde eta eurekin batera. Zuok, gazte zoriontsuok, dastatu eizue egiazko maitasunaren gozoa eta guk, lagunok, lagundu deioegula maitasun-bidean zuzen eta pozez, zorioneko alkarte osora heldu daitezana.

9

**BIDAIA LUZE BATEN AURREAN
BEDEINKAPENA**

Egunon eta ondo etorriak, lagunok! Gizakia mugikorra da; bera mundukoa da eta mundua berea dau. Zenbat aukera hara-hona joan-etorriak egiteko! Gaur bizi-beharrak eroango dau, bihar oporraldi bat hartu-nahiak; behin adiskide bat bisitatzera joango da, eta beste behin jaiegun bat ospatzera. Zenbat aukera eta zenbat arrisku! Guk fededunok Jainkoaren babesa eskatzen dogu, bidaia on bat izan daigun. "Aitaren" bat baino gehiago ere merezi dau jazoera honek.

“Poztu zaiteze beti Jaunagan!
Poztu zaiteze, dinotsuet barriro ere!
Ikusi daiela jente guztiak zein bihozbera
zareen. Jauna hur dago! Ez artegatu
ezergaitik ere; agertu, ostera, Jaunari zuen
beharrizan guztiak, zuen erregu eta
eskariak Berari zuzenduz eta eskerrak
emonez. Eta asmatu ahala baino gehiago
dan Jaungoikoaren bakeak zaindu begiz
zuen bihotzak eta zuen gogapenak
Jesukristogan”

(Filipoarrei 4, 4-7).



ESKERTZEN ZAITUGU

Zu zaitugu hasiera – *Eskertzen zaitugu*
Zu gure bidelagun – *Eskertzen zaitugu*
Zu guztion helburu – *Eskertzen zaitugu*
Zu gure zoriona – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Zaindu gaizuz bidean – *Eskatzen deuntsugu*
Gidaria lagundu – *Eskatzen deuntsugu*
Arriskutik atera – *Eskatzen deuntsugu*
Pozik igaro daigun – *Eskatzen deuntsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Gure bide guztien hasiera eta amaiera
zaitugun Aita ona! Zeure izenean
hasien dogu gaurko bidaia hau. Geure
eguneroko bizilekutik urtenda,
mundu zabalera goaz, beste herrialde
batzuk ikusi eta ezagutzera. Zeure
ardurapean ipinten dogu ibilaldia.
BEDEINKATU gaizuz guztiok, zatoz
gurekin eta izan zaitez gure poza. Bai
gaur eta bai bizitzako bidaia osoan
alkarren lagun zintzoak izan gaitzala,
egizu.

AGURRA

Lagunok: hainbeste ordu eta kilometro
ibiliko gara alkarregaz. Autoa gidariaren
esku dago, eta geu guztion esku, joan-
-etorria. Gidariak izan daiela behar dauan
argia eta guk behar dogun umorea eta gogo
ona, joan-etorri bete-betea izan daigun.
Goazen Jaunaren bakean.

10

HILZORIAN DAGOANAREN BEDEINKAPENA

Ibaiak itsasoan eta guk Jainkoagan dogu azken betea. Gure senide hau heldu da Egilearen eskuetara. Zoriontsu izateko egin ebanak zorionez plen-plen egin daijala. Bizitzan beronegaz hartuemon beroan bizi izan garanok, bere ondoan batu gara, beragaz bat eginda Jainkoaren aurrean. Guztiokaitik hil eta biztu dan Jesus Jauna dogu bitarteko.

“Jesusen gurutze-ondoan Haren Ama eta Haren Amaren ahizta Maria Kleofasena eta Maria Magdalena egozan. Jesusek bere Ama eta beronen ondoan Berak maite eban ikaslea ikusirik, badinotso Amari: «Andra, horra hor zure semea.» Gero ikasleari: «Hor dozu zure Ama.» Eta harrezkero ikasleak bere etxean hartu eban Maria”

(Joan 19, 25-27).



ESKERTZEN ZAITUGU

Gugaitik hil zinana – *Eskertzen zaitugu*
Senide honen partez – *Eskertzen zaitugu*
Bere fedeagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Hain maite dozulako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Senide honen alde – *Eskatzen deutsugu*
Emoiozu bakea – *Eskatzen deutsugu*
Parka hutsegiteak – *Eskatzen deutsugu*
Ama lagun dogula – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Gugaitik gurutzean hil zinan Jesus ona! Zure eskuetan izten dogu zure zerbitzari eta gure senide hau. Gomutau zaitez, Jauna, beraugaitik jatsi zinala mundura, eta beronegaitik gurutzean bizia emon. Lapur onaren antzera, BEDEINKATU eizu eta ezarri zure erreinuko zorion betean. Zeu, hiltzen zengozala, amatzat emon zeunskun Maria lagun dogula. Emoiozu betiko atsedena.

AGURRA

Senideok: guk baino maiteago dauan Aita Jaungoikoaren eskuetan itzi dogu gure senide hau. Alkarri lagunduz bete daigula honek izten deuskun hutsunea. Eta berak ere lagundu deiskula Jaunaren aurrean, geuk ere bete ahal daigun han prest daukagun lekua.

11

BIZILEKUAREN BEDEINKAPENA

Etxea, bizilekua, sendia! Bihotza pil-pilean ipinten deuskuezan berbak, sentipenak. Izan ere, hortxe jaio, hazi, hezi, bizi eta hil egiten gara. Hortxe dago gure eskola, eleiza, eta lantegi behinena, oinarrizkoena. Jesus, Jose eta Maria doguz familiako bizitzaren erakusle eta zaindari, eguneroko izerdiz, lanez eta otoitzez. Jauna gizakien artean bizi da, batez ere etxean. Sinismen honek eraginda batu gara otoitzean.

“Hareekaz batera jatsi eta Nazaretera etorri zan Jesus, eta Hareen menpean bizi zan. Jesusen Amak berba guztiok bere bihotzean arduraz gordeten ebazan. Jesus hazi egiten zan jakituriz eta gorputzez eta graziz Jaungoikoaren eta gizonen aurrean”

(Lukas 2, 51-52).



ESKERTZEN ZAITUGU

Sendi-bizitzagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Seniarteagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Etxe barri haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Maite gaituzulako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Jesus, zatoz gurera – *Eskatzen deutsugu*
Bedeinkatu etxe hau – *Eskatzen deutsugu*
Bizi zaitetz gurekin – *Eskatzen deutsugu*
Bakeleku izan dadin – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

**Gure arteko egin zinan Jesus Jauna!
Hona hemen zure egoitza barri bat.
Zatoz eta BEDEINKATU eizu zure presentzi pozgarriz. Zure Espirituaren eraginez, etxe honetan izan daiteela mahai zabala eta atea zabalik egon daitezala, beste guztiekaz maitasunezko hartuemonean bizi az. Izan zaitetz Zeu, Jauna, etxebizitza barri honen oinarri eta euskarri sendoa, ezetarik gatzek hondatu ez daian. Eskerrak bihotzez Zuri, ondasun pozgarri honegaitik.**

AGURRA

Adiskideok: bizileku barri honen alde bedeinkapena eskatu deutsogu Jaunari. Geu ere izan gaitezala bedeinkapenen banatzaile eta Jaunaren presentziaren zabaltzaile: gizakiak banatzen dabezan mugak eta hormak deseginez eta anaiarteko batasuna sendotuz. Mundu osoa bihurtu dadin Aitaren Etxe.

12

KALE EDO AUZUNEAREN BEDEINKAPENA

Bakoitzak bere etxea, bere bizimodua nahi izaten dau; baina alkar behar, bizitzeko; banan, baina alkarren ondoan. Gure inguruak betetzen eta aldatzen doaz; Jainkoaren seme-alaben familia hazten doa. Hona hemen etxe edo auzune barri eder galanta. Gu fededun lez batu gara hemen, Aitaren bedeinkapenak osotu daian gizonen eskulana; eta biztanleak pilatu beharrean, alkartuta bizi daitezan.

“Lurrean zuetariko bik zerbait eskatzeko, dana dala, alkar bat egiten badabe, zeruetan dagoan nire Aitagandik jadetsi egingo dabe; bi edo hiru lagun neure izenean batuta dagozan tokian, Neu ere erdian nago-eta”

(Mateo 18, 19-20).



ESKERTZEN ZAITUGU

Aita zaitugun Jainko – *Eskertzen zaitugu*

Bizileku haugaitik – *Eskertzen zaitugu*

Gizon zintzoen partez – *Eskertzen zaitugu*

Lagun barriakaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka etxalde hau – *Eskatzen deutsugu*

Harremonak sendotu – *Eskatzen deutsugu*

Alkarlana indartu – *Eskatzen deutsugu*

Bakean zaindu gaizuz – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Barriak sortu eta zaharrak erabarritzen dozuzan Jaun ona! Zeure seme-alaba dozun gizakia Zeu lez sortzaile egin dozu, beragan luzatzen dozu zure babesa. Zagoz gure artean, eta BEDEINKATU eskuzabalez zure seme-alabak bizitzeko jaso daben etxalde hau, hemen alkartu diranak bizikera barri bat hasi daiela alkarlanean. Aldenduak egonik, bizilekuz alkartu diranok, alkarbizitza baketsu eta emonkor bat osotu daiela.

AGURRA

Adiskideok: gure herria haziaz doa. Hau, alde batetik pozgarria da, baina bestetik kezkarria. Haundiago eginaz doan neurrian, bere nortasunean eta batasunean ere helduaz joan dadila. Jaunak bedeinka gaizala geu guztiok, bizileku barri eta hobeago baten eragile izan gaitezan.

13

BIDEAREN BEDEINKAPENA

Gizakia berez da bidelari; ahal izanik, mundu guztia ezagutu nahi dau, lurralde ezbardinetako lagunakaz hartuemonak egin. Mundua gero eta txikiago egiten doa; halako bide egokiak egin ere egiten dabez-eta. Hona hemen bide barri hau guztion zerbitzurako. Jainkoak bai begi onez ikusiko dauala, gizonok mundua hobeagotzen jartzen dogun ahalegina.

“Egun haretan bertan, ikasleetariko bi,
Jerusalendik hamaika kilometrotara
dagoan Emaus izeneko herritxora joiazan,
eta jazo izan ziran guztiai buruz
ziharduen alkarregaz berbetan. Hareek
berbetan eta eztabaidan ziharduen artean,
Jesus Bera hurreratu eta eurakaz joan zan
bidelagun; hareen begiak, ostera, ilunduta
egozan, Jesus ez ezagutzeko. [...]”
«Ez genduan, ba,ugarretan bihotza
gure barruan, Harek bidean
berba egiten euskunean eta Liburu
Santuak azaltzen euskuzanean?»”

(Lukas 24, 13-16.32).



ESKERTZEN ZAITUGU

Zeru-lurren Egile – *Eskertzen zaitugu*
Bide barri haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Arduradunakaitik – *Eskertzen zaitugu*
Gizon guztien partez – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bidelariak zaindu – *Eskatzen deuntsugu*
Arduradunak poztu – *Eskatzen deuntsugu*
Langileak lagundu – *Eskatzen deuntsugu*
Guztiok bedeinkatu – *Eskatzen deuntsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

**Munduko bideetan gizona noraezean
izten ez dozun Aita leiala! Jesus bialdu
deuskuzu Zueganako bidelagun izan
daigun. Egizu guztiok ikasi daigula
Beragandik bide zuzenekoak izaten,
gero alkartasunezko bideak egin eta
ganoraz zaindu daiguzan gure artean.
Zatoz, Jesus Jauna, eta BEDEINKATU
bide barri hau, eta argitu eizuz gure
begi-bihotzak, bideko norabideak
zuzen hartu eta Aitarene Etxera heldu
gaitezana.**

AGURRA

Senideok: gero eta hobeagora goaz; bideak
ere barri eta egokiagoak egiten deuskuez.
Izan bedi guztion onerako, alkarrekin
hartuemon sakonagoak egiteko, eta geure
bizimodua gozoagoa moldatzeko.

14

ZUBIAREN BEDEINKAPENA

Senideok:

Kristau fedeak alkaturik gagoz zubi barri baten aurrean; ez bakarrik bere edertasuna ikusi eta txaloak joteko. Hobeagotuz doan gure gizarte bizitzagaitik eskerrak emoteko eta Jaunari laguntza barriak eskatzeko, eginbide goralgarri horretan aurrera jarrai daigun.

“Semea hasarretu egin zan, eta ez eban sartu nahi. Bere aita urten eta erreguka hasi jakon. [...]”

«Seme, zu beti neugaz zagoz, eta nire guztia zeurea da! Egoki zan, ba, ospatu eta poztutea: zure anai hau hilda egoan eta bizitzara bihurtu da-eta; galduta egoan eta aurkitua izan da-eta!»

(Lukas 15, 28.31-32).



ESKERTZEN ZAITUGU

On guztien iturri – *Eskertzen zaitugu*

Ongile danakaitik – *Eskertzen zaitugu*

Zubi barri haugaitik – *Eskertzen zaitugu*

Lagun zaitugulako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Zubigileen alde – *Eskatzen deutsugu*

Bedeinkatu zubi hau – *Eskatzen deutsugu*

Zaindu herri-gizonak – *Eskatzen deutsugu*

Eutsi alkarlanean – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Aita errukitsu Hori! Zeuk bialdu deuskuzu Jesus zure Semea, zure eta gure bitarteko Zubi izatera. Bere bitartez gatortuz, Beragaitik eskerrak emotera. Bere izenean eskatzen deutsugu BEDEINKATU daizula zubi barri hau, eta izan daitela alde bateko eta bestekoen batasunerako. Eta, bide batez, ugaritu eizuz gizarteko zubi eta bakegile guztiak.

AGURRA

Bai dala gauza ederra zubia, ertz bi alkartzen dituana, bateko eta besteko bizilagunak alkartuz. Zubi barri honen egokitasunak eragin deiskula danoi, geure arteko bizitzan zubigile zintzo izan gaitezan. Bake-bide eta zubi barriak egitea baino gauza ederragorik ba ete? Ondo ibili!

15

**ELEIZAREN
BEDEINKAPENA**

Eleiza bateko senide gara guztiok. Kristau batentzat pozgarria da geure batzarleku barria (edo zaharbarritua) egoki ikustea. Hagaitik, gogo beroz alkarlanean jokatu dogu aspaldion. Gure aurrekoengandik hartu doguzan ondasunok ez daukaguz bertan behera alperrik galtzen izteko. Egun alai zein ilunetan batzen gaituan etxe honek, gaur pozez eta eskerronez beterik, Jaungoikoari bedeinkapen bete-beteak eskatzeko asmoz batzen gaitu.

“Ez al dakizue Jaungoikoaren etxe zarena eta Jaungoikoaren Espiritua zeuekan bizi dana? Jaungoikoaren etxea hondatzen dauana, hondatu egingo dau Jaungoikoak, Jaungoikoaren etxea santua da-eta: etxe hori zeuok zaree”

(1 Korintoarrei 3, 16-17).



ESKERTZEN ZAITUGU

Geugaz zagozalako – *Eskertzen zaitugu*
Seme-alabok kantuz – *Eskertzen zaitugu*
Zeure Etxean batuta – *Eskertzen zaitugu*
Etxe eder haugaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka zure Etxe hau – *Eskatzen deuntsugu*
Bertatik zaindu gaizuz – *Eskatzen deuntsugu*
Onartu gure lanak – *Eskatzen deuntsugu*
Saritu langileak – *Eskatzen deuntsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Zeru-lurak zure haunditasunez gainditzen dozuzan Jainko Jauna! Hau poza, jaso (edo barriztu) deusugun egoitza hau onartzen dozulako, eta geure auzotar zaitugulako. **BEDEINKATU** eizu arren, zure bizileku hau, baita hau egokitu dabenen ardurea eta nekea ere. Hemen Zeugaz alkartuko garan bakoitzean, geu bedeinkatuko gaituzu, geu bakoitza izan gaitazan zure bizileku atsegingarri; eta geugandik jarraitu daizun inguruko bizitza guttia zuzentzen eta bedeinkatzen. Gaurko bedeinkapen hau izan bedi zeruko Etxe ederrean Zeuk emongo deuskuzun bedeinkapen haundi eta betikoaren ezaugarri.

AGURRA

Senideok: bedeinkatu dogu, etenbarik, gure bedeinkapen-leku eta iturri izango dan jauretxe hau. Harrizko Jainkolekua jasotzeko egin dogun ahalegina eta gehiago egin daigula, Jainko seme-alaben bizilekua dan mundua bedeinkapenez argitzen eta gozatzen. Ondo izan!

16

BULEGOAREN BEDEINKAPENA

Ondo etorriak lagunok!

Lantoki barri bat bedeinkatzeak benetan poztuten gaitu. Munduko martxa aurrera doala ikusten dogu, bere gorabeherakaz. Horregaitik bedeinkatzen eta goratzen dogu Jauna, eta bere bedeinkapena eskatzen: gure ahaleginak Berak frutu gozo bihurtu daizan eta aurrera-bidean aspertu barik jarraitu daigun. Bulego honen bedeinkapen-egun hau guztiontzat pozgarri daigula.

“Zuen artean, ostera, ez dau holan izan behar. Zuen artean haundien izan nahi dauana izan bedi zuen zerbitzari. Eta zuen artean lehenengo izan nahi dauana izan bedi guztien morroi. Gizonaren Semea lez: Ha ez da etorri zerbidua izatera, zerbitzari izatera baino, bere bizia guztien alde ordain-saritzat emotera”

(Mateo 20, 26-28).



ESKERTZEN ZAITUGU

Munduaren Sortzaile – *Eskertzen zaitugu*
Zu bizi-eragile – *Eskertzen zaitugu*
Laneko bultzatzaile – *Eskertzen zaitugu*
Gizonaren lankide – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka bulego hau – *Eskatzen deutsugu*
Langile danen alde – *Eskatzen deutsugu*
Lagundu lana sortzen – *Eskatzen deutsugu*
Zaindu alkarlanean – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Guk uste baino lagunago zaitugun Aita Jainkoa! Eskerrik asko gudan sortzen dozun gogoagaitik, bai lanerako, bai bizitzan gozatzeko. **BEDEINKATU** eizu bulego hau; lagundu, arren, hemengo arduradunei lanean aurrera egiten. Bulego hau langile anai-arreba askoren bizi-iturri izan dadila.

AGURRA

Adiskideok: bulego barri honen jabeagaz alkartu gara, fede bateko anai-arreba lez. Hemen otoitzean agertu eta eskatu doguna, gero eguneroko bizitzan erakutsi daigula. Horixe izango da eskatu dogun bedeinkapenaren ezaugarriarik onena.

17

**HERRIKO NAGUSIEN
EGOITZAREN BEDEINKAPENA**

Senideok:

Bizia Jaungoikoaren dohairik baliotsuena da. Eta bizia, bizia dalako eta beste barik, ondo zaindu beharreko pitxia dogu. Txalogarria herri agintarien ardurea, gure herriko nagusientzako egoitza gozo hau egiteko. Herri osoaren izenean, eskerrik beroenak arduradun nagusiei.

“Nikodemo eritxon gizon batek, fariseuen taldekoa eta judeguen buruetakoa bera, gauez Jesusengana etorri eta esan eutson:

«Maisu, ziur gagoz Jainkoak guri irakasteko bialdu zaituana, inork ezin daikez egin-eta zuk egiten dozuzan mirarizko seinaleak, Jainkoa Beragaz ez badau.» Jesusek erantzun eutson: «Bene-benetan dinotsut: ezin dau inork Jainkoaren erreinua ikusi, barriro jaioten ez bada»

(Joan 3, 1-3).



ESKERTZEN ZAITUGU

Gizakien babesa – *Eskertzen zaitugu*
Nekatuen laguna – *Eskertzen zaitugu*
Nagusien Nagusi – *Eskertzen zaitugu*
Zu gure bizipoza – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka egoitza hau – *Eskatzen deutsugu*
Bakez babestu eizuz – *Eskatzen deutsugu*
Pozleku izan dadin – *Eskatzen deutsugu*
Bedeinka nagusiak – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Gure gurasoen guraso zaitugun Jainko Aita! Zure dohairik ederrenak, bizia bera lehenengo dala, gurasoen bidez luzatu dozuz guganaino. Eskerronez beterik eskatzen deutsugu: **BEDEINKATU** eizu nagusien egoitza hau, bedeinka eskuzabalez bertan alkartuko diran guztiak. Bizitzako nekelenen saritzat eskeintzen deutsegu; izan bedi euren poz-osasunerako eta zure aintzarako.

AGURRA

Anai-arrebok: nagusien egoitza hau bedeinkatzea bizitzari omenaldi bat izan da. Urterik onenak gure alde emon dabezanak, orain eurak ere, geratzen jakezanak, ahal danik ondoen igaro daiezan, ahaleginak egin behar doguz. Bedeinkatu zaiezala Jaungoiko Guzti Ahaldunak: Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak.

18

AMA BARRI IZAN DANAREN BEDEINKAPENA

Lehenengo berbatik eta bihotz-betean ZORIONAK ama izatearen poza izan dozun horri! Senide eta adiskide hemen batu gara zeugaz, Jauna bedeinkatuaz gainera, zeure eta zeure sabeleko frutuaren alde bere bedeinkapenak eskatzeko asmoz. Gure fede-argitan, are ederrago eta haundiago zara, ama.

“Moisesen legez, garbikuntzako egunak bete jakezanean, Jesus Jerusalemenera eroan eben, Jaunari eskeintzeko. [...] Jesusen aita eta ama harrituta egozan, Haretaz inoenaz. Simeonek bedeinkatu egin ebazan eta Jesusen ama Mariari hauxe esan eutson: «Ume hau Israeldar guztiak jausteko edo jagiteko dago jarria, baita ukatuko dabenen ezaugarrirako ere; eta zeuri ere, ezpata batek zulatuko deitsu arimea alderik alde, bihotz askoren asmoak agirian geratu daitezan»”

(Lukas 2, 22.33-35).



ESKERTZEN ZAITUGU

Zu aita-amen Aita – *Eskertzen zaitugu*
Ama barriarekin – *Eskertzen zaitugu*
Ume barriagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Hain ona zaralako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka ama barria – *Eskatzen deuntsugu*
Zaindu jaiobarria – *Eskatzen deuntsugu*
Emon zure laguntza – *Eskatzen deuntsugu*
Egizuz zoriontsu – *Eskatzen deuntsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Bizi-iturri zaitugun Aita Jainkoa! Ume barriaren pozetan dagozan aita-ama biokaz batera bedeinkatzen zaitugu. Zaindu eizuz ume eta guraso. Onartu senitarte osoaren eskerrona eta goralpenak. **BEDEINKATU** eizu, arren, bizi barriz saritu dozun ama zoriontsu hau, eta bateo santuz zeure semetzat (alabatzat) eskeindu daizula.

AGURRA

Senideok: bai atsekabeak eta bai zoriontasunak alkartzen gaitu alkarren lagun garanok. Bizi barriagaitik Jauna bedeinkatzen dogun ezkerro, jokatu daigula beti, berbaz eta egitez, biziaren eta poztasunaren alde. Guztiok seme-alaba gaituan Aita Jainkoak bedeinka gaizala.

19

**GAIXOETXEAREN
BEDEINKAPENA**

Senideok:

Gizakiok dogun gauzarik maitagarriena osasuna da. Eta hemen dabilkigu gaixotasuna atzetik, aurretik edo barrutik, gure lurreko giza bizitzaren kendu-ezineko atal lez. Gaur hemen batu gaituan arazoak danoi eta barru-barruan ikututen deusku. Gaixoetxe barri hau egin dabenakaz batera, eskeindu daiogun Jaunari, eta bere bedeinkapenik ederrenak eskatu daioguzan, hona osasun-bila datozenentzat eta euren ardurea izango dabenen alde.

“Etorri zaitetze, nire Aitaren bedeinkatuok!

Hartu eizue munduaren hasieratik
zuentzat atondutako Erreinua.

Gaixorik egon nintzan eta
zuek bisitatu ninduzuen. [...]

Orduan zintzoak haxe erantzungo
deutsoe: «Jauna, noiz ikusi zinduguzan
gaixorik edo giltzapean, eta gu Zu
bisitatzera joan gintxatzuzan?» [...]

Eta Erregeak haxe esango deutse:
«Benetan dinotsuet: Nire anai honeitariko
txikiren bati egin zeuntsena,
Neuri egin zeunsten.»

(Mateo 25, 34-35.37.40).



ESKERTZEN ZAITUGU

Aita guztien Aita – *Eskertzen zaitugu*

Ama guztien Ama – *Eskertzen zaitugu*

Diran danen sorburu – *Eskertzen zaitugu*

Diran danen helburu – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinkatu gaixoak – *Eskatzen deutsugu*

Eta gaixoetxe hau – *Eskatzen deutsugu*

Zaindu arduradunak – *Eskatzen deutsugu*

Zerbitzarien alde – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Jesus Jauna, Zuk gaixorik edo minez
dagozanakaz bat-egiten dozu zeure
burua, eta behartsu bati egindakoa
Zeuri egindakotzat hartzen dozu.
BEDEINKATU eizu gaixoetxe hau,
minduen osagarri izan dadin, eta
lagun zintzo askoren erruki-leku.
Bedeinkatu gizon-emakume askoren
ahaleginak, sendabide barriak bilatuz,
gizakien nekeminak arindu daiezan.
Zeuri zor deusugun begiramen eta
maitasunez bisitatu eta zaindu
daiguzala gaixo minduak.

AGURRA

Adiskideok: gaixoetxe hau bedeinkatzean,
geuretzat ere beinkapena eskatzen dogu.
Gaixoak han-hemen ugari dagoz, nonahi
dogu aukerea, eurengana hurreratu eta,
Jesus Berari lez, geure zerbitzurik onenak
eskeintzeko. Goazen Jaunaren bakean!

20

IKASTETXEAREN BEDEINKAPENA

Egunon, adiskideok, Jauna bego zuekin! Denporeak berez zahar-tzen gaitu guztiok, izaki eta gizaki. Jaunaren Espiritua da barriak sortu eta zaharrak eraba-rritzen dituana. Baina ia beti gizonaren bitartez; gizakia bera egin dau sortzaile eta barrizta-tzaile. Honetan ere badau giza-kiak Jainkoaren antza. Besteak beste, gaur ikastetxe (gela, libu-rutegi...) barri honek batu gaitu kristau fedean otoitzean.

“Hiru egunen buruan, jauretxean aurkitu eben, lege-maisuen erdian jarrita, entzun eta erantzuten; entzuten eutsoen guztiak harrituta egozan erantzunetan agertzen eutsen argitasunagaitik. Ikusi ebenean, harrituta gelditu ziran gurasoak, eta amak esan eutson: «Seme, zergaitik egin deuskuzu hori? Ikusi zein larri genbiltzan aita eta biok zure bila!» Harek erantzun eutsen: «Zergaitik zenbiltzen nire bila? Ez al zenkien nik neure Aitaren gauzetan jardun behar dodala?»”

(Lukas 2, 46-49).



ESKERTZEN ZAITUGU

Diran guztien Jabe – *Eskertzen zaitugu*
Gure Aita Jainkoa – *Eskertzen zaitugu*
Zu gure bizi-iturri – *Eskertzen zaitugu*
Espiritua lagun – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka gure lanak – *Eskatzen deutsugu*
Eta ikastetxe hau – *Eskatzen deutsugu*
Zaindu gure gazteak – *Eskatzen deutsugu*
Eta irakasleak – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Gure Maisu bakarra zaitugun Jesus Jauna! Gure artera jatsi zinan eta hain ikasle zintzoa izanda gero, irakasle argi bihurtu zinan. BEDEINKATU, arren, ikastetxe hau, ume eta gazte askorentzat heziketa-leku pozgarri izan dadin. Zaindu hemengo irakasle eta arduradunak, zure ordezeko hezitzaile zuzenak izan daitezcan. Guraso eta irakasle bat-eginda, zure maitasunaren ordezeko eta testigu agertu daitezala ume eta gazteen aurrean.

AGURRA

Adiskideok: oinarri, horma eta teilatu osotuta dago ikastetxea. Jaunaren bedeinkapenez babestu dogu. Orain geu ere argitu gaizala Jaunak, ahal dogun neurrian, ume eta gazteak geugandik ere jarraibide zuzena jaso daien, gure bizitza osoa ikastetxe argi bihurtuaz. Izan bake eta on!

21

**ITURRIAREN
BEDEINKAPENA**

Adiskideok, izadia bera da liburu zabal edegia, Jainkoaren haunditasuna eta deuskun maitasuna adierazoteko egokiena. Gaur iturri barri batek alkartu gaitu, bere uraren pol-pol soinura Jainkoa goratzeko. Zein egintza ederra dan Jainkoaren aurrean, Beragandik hartutako ondasunak bideratu eta guztien zerbitzura jartzea!

“Jesusek esan eutsen:
«Ur honetatik edaten dauana
barriro ere egarri izango da;
Nik emongo deusodan uretik
edango dauana, ostera,
ez da sekula egarri izango;
Nik emongo deusodan ura
betiko bizia darion iturburu
bihurtuko jako barruan eta»”

(Joan 4, 13-14).



ESKERTZEN ZAITUGU

Jainko, bizi-iturri – *Eskertzen zaitugu*
Izadiaz batera – *Eskertzen zaitugu*
Zu gure asegarri – *Eskertzen zaitugu*
Iturrien Itsaso – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUSUGU

Bedeinka iturri hau – *Eskatzen deusugu*
Ta edango dabenak – *Eskatzen deusugu*
Emon zure uretik – *Eskatzen deusugu*
Zure egarri gaitzean – *Eskatzen deusugu*

GURE AITA...

OTOITZA

On guztien iturburu zaitugun Jainko
Jauna! Bedeinkatzen zaitugu, gure
egarrien asegarri izateko, Jesus zure
Semea bialdu deuskuzulako. Iturri
barri hau **BEDEINKATU** daizula
eskatzen deusugu; eta emoiguzu zure
egarria eta egarri hori aseko deuskun
zure Espirituaren grazi-ura. Eta itu-
rriak itsasora lez, geu ere heldu gaite-
zala gure Itsaso zaitugun Horrengana.

AGURRA

Adiskideok: goitik datorren ura, iturri barri
baten bidez, egarri diranentzat asegarria
banatzeko eran ipini deuskue. Erakutsi
ederra, geuk ere, beste ondasun batzuekin
beste horrenbeste egin ahal daigun.
Alkarren egarriak alkarlaguntzan asetzen
ahalegindu gaitetzala.

22

EDOZEIN LANABESEN BEDEINKAPENA

Auzotar eta senide: ondo etorriak!

Jaungoiko Egileak gizonaren eskuetan itzi dau mundua, landu eta bertatik bizitzeko aginduaz. Horretarako gizonak berak asmatzen ditu lanabes egokiak, bere eskuetako indarra areagotzeko. Eta, hain zuzen ere, gero eta lanabes egokiagoak, baliagarriagoak, asmatzen ere. Bada errazoirik nahiko, Jainkoa eskertzeko eta bere bedeinkapen ugariak eskatzeko.

“Jaungoikoak bere antzeko egin eban gizona, Jaungoikoaren irudiko egin eban; gizon eta emakume egin ebazan. Jaungoikoak biak bedeinkatu ebezan, esanez: «Hazi eta ugaritu zaiteze, bete eizue lurra eta zeuen menpean ezarri; menperatu eizuez itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurgainean dabilzan bizidun guztiak»”

(Hasier a 1, 27-28).



ESKERTZEN ZAITUGU

Jainko Guzti Ahalduna – *Eskertzen zaitugu*
Hain maite gaituzuna – *Eskertzen zaitugu*
Zeure antzeko gara – *Eskertzen zaitugu*
Gure lankide maite – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka lanabes hau – *Eskatzen deutsugu*
Bete gaizuz indarrez – *Eskatzen deutsugu*
Zaindu gure bizia – *Eskatzen deutsugu*
Saritu gure lana – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Zeure antzeko egin gaituzun Aita Jainkoa! Zeru-lurretako izaki guztien izenean bedeinkatzen zaitugu. Eskerrak Zuri, mundua gure eskuetan itzi deuskuzulako! BEDEINKATU, arren, lanabes hau, gure eskuetan lagungarri izan dakigun. Berotu gure gogoa, sendotu gure besoak, Zeuk emondako agindua beteaz, Zeu goratu zaiguzan.

AGURRA

Adiskideok: gauza gitxi behar da, fededunaren bihotza edegi eta Jainkoaren aurrean goraka eta esker-kantuz jartzeko. Hauxe egin dogu guk hemen. Jarrai daigula Jaunagana zabalik, otoitzean.

23

**EDOZEIN BEHARLEKU
TXIKIREN BEDEINKAPENA**

Ondo etorriak, adiskideok!

Era askotako batzarraldiak egiten doguz bizitzan zehar. Gaurko hau pozgarria da: lanez eta izerdiz eregitako beharlekua bedeinkatu guraz. Beharlekua: bizilekua eta maitelekua... danok dagoz alkarlotuta. Bizitza bera da, azken baten. Beronen jabearekin alkartzen gara otoitzean, Jauna goratuz eta bere bedeinkapenak eskatuz.

“Senideok, ahalegindu zaitetze, arren, gero eta maitasun haundiagoa izaten, eta bizitza baketsua erosten, nor bere arazoaz arduratuaz eta nork bere eskuz lan eginez, agindu deusuegun lez. Horrela, kristau ez diranen errespetua zeuenganatuko dozue, eta ez dozue inoren beharrik izango”

(1 Tesalonikarrei 4, 10-12).



ESKERTZEN ZAITUGU

Danok fedez batuta – *Eskertzen zaitugu*
Jolas eta lanean – *Eskertzen zaitugu*
Nonahi ta beti pozik – *Eskertzen zaitugu*
Eskuz eta bihotzez – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka lantoki hau – *Eskatzen deusugu*
Zaindu gure eskulana – *Eskatzen deusugu*
Bete gure ametsak – *Eskatzen deusugu*
Saritu gure lanak – *Eskatzen deusugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Otoitzean eta lanean ondoan zaitugun Jesus Jauna! Zuk badakizu zer dan eguneroko lana. BEDEINKATU, arren, ardura haundiz egin dogun beharleku hau. Gure eguneroko nekeak bizipoza sortu deuskula, Zeuk lagunduta. Hona hurreratzen diranak gogo onez hartu eta maitasunez lagundu daiguzala.

AGURRA

Adiskideok: beharleku barri bat gehiago. Hau bedeinkatzean, bakoitzak geure beharlekua ere gogoan izan dogu. Gaurko bedeinkapenak geu guztiok ere bete gaizala, eguneroko lanbidea bizibide pozgarri bihurtu dakigun. Goazen Jaunaren bakean!

24

LANTEGIAREN BEDEINKAPENA

Egunon, bizilagunok!

Ikusiz ikasi doguna da honako hau: bizibeharrak eragiten deuskula beharrera. “Beharrak behar eragiten dau.” Baina askotariko ahalmenez horniduta egoteak, berak beste barik, eroan behar gaitu lanera. Alperra izen txarra da, hainbeste dohai hain ederrak alperrik galdu beharra! Horregaitik, gaur lantegi barri baten bedeinkapenak pozez eta itxaropenez alkartu gaitu.

“Etxea egitean, zulatu, sakondu eta oinarriak hatx-gainean hartu ebazan gizon baten antzekoa da. Uriolak etortean, ur-boladeak etxea jo, bai, jo egin eban, baina ezin hondatu izan eban, etxea ondo eginda egoan eta”

(Lukas 6, 48).



ESKERTZEN ZAITUGU

Mundu eder haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Geuretzat dogulako – *Eskertzen zaitugu*
Lagun zaitugulako – *Eskertzen zaitugu*
Gaur lantegi haugaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka lantegi hau – *Eskatzen deutsugu*
Onartu gure lana – *Eskatzen deutsugu*
Babestu langileak – *Eskatzen deutsugu*
Zaindu alkarlanean – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Ardurarik haundienaz zaintzen gaituzun Aita! Gu lankidetzat hartu gaituzu eta dohai ederrez jantzi, mundua aurrera croateko eta ederragotzeko. **BEDEINKATU** lantegi barri hau, eta anaitasuna eta zuzentasuna izan daizala oinarritzat. Eraso guztien aurka eutsi eiozu indarrean, askoren bizibiderako suertatu dadin.

AGURRA

Lagun maiteok: lantegi barriaren aldeko otoitzean alkartu garanok, alkarlanean ere jarraitu daigula, hortxe dago-eta Jaunaren etenbako bedeinkapena. Izan osasun eta jarrai bakean!

25

**UMEEN
BEDEINKAPENA**

Munduan bedeinkatu daitekenik ederrena, maitagarriena bedeinkatzera goaz: umeak. Jesus gure Jauna ere umetxo egin zan, umezalea izan zan, eta zeruan sartzeko ere, ume-antzeko izatea eskatu euskun. Ume-xalotasunez egin daigun otoitz, umetxoekin batera, geu ere Jaunak bedeinkatu gaizan.

“Umetxoak eroan eutsoezan Jesusi,
ikutu egizan; ikasleak, hori ikustean,
hasarre egiten eutsoen.

Baina Jesusek umetxoak Beragana
deitu ebazan eta esan:

«Itzi umeei Niregana etorten,
ez galerazo, Jaungoikoaren erreinua
horrelakoena da-eta. Benetan dinotsuet:
Jaungoikoaren erreinua ume batek lez
onartzen ez dauana
ez da ezelan ere bertan sartuko.»

(Lukas 18, 15-17).



ESKERTZEN ZAITUGU

Seme-alabok, Aita – *Eskertzen zaitugu*
Ume egin zinan, Jesus – *Eskertzen zaitugu*
Espiritu Santua – *Eskertzen zaitugu*
Umeekin batera – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinkatu umeak – *Eskatzen deutsugu*
Zaindu osasun, bakez – *Eskatzen deutsugu*
Ume bihurtu gaizuz – *Eskatzen deutsugu*
Zuri Abba deituaz – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Jaungoikoari Aitatxo deitzen erakutsi
deuskuzun Jesus Jauna! Ezarri eiguzu
ume-bihotza, Zeugaz batera Aita goratu
eta bedeinkatzeko. **BEDEINKATU** eizuz
umeok, zaindu eizuz Zeuganako
maitasunean eta bide zuzenean.
Bedeinkapen bardinez bete eizuz
euren gurasoak eta senideak. Geu
guztiok ere bedeinkatu gaizuz,
umeontzat gidari eta lagun zintzo izan
gaitezan.

AGURRA

Adiskideok: irauin daijala guban bedeinkapen honen graziak. Umeon alaitasunean eta maitasunean ezagutu daigula Jaungoikoaren Aitatasuna, eta eurak jaso daijala gugandik Jaungoikoak deutesen maitasuna eta ardurea. Ume eta nagusi, Jauna lagun, ondo bizi!

26

SOLO-LANDEN BEDEINKAPENA

Etxeko eta auzoko senide maiteok!

Sinismen bereko anai-arreba lez
alkartu gara, gure lurraldeok
bedeinkatzeko asmoz. Lurrez
eginak eta lurretik biziak gara,
baina Jainkoaren arnas-espirituz
orniduak, bere seme-alabatzat
hartuak. Bere bedeinkapenak
isuri daizala guregan, eta gure
eskuz landu eta zaindu behar
doguzan lurraldeotan.

“Jainkoak esan eutsen:

«Hara, zeuei emoten deutsuedaz
lurrazalean diran hazidun landare guztiak
eta hazidun frutarbola guztiak;
horreek izango dozuez janari.
Abere, zeruko hegazti eta lurrean
narrastaka dabiltzan bizidun guztiei,
barriz, bedar hezea emoten deutset janari.»
Eta halan izan zan. Eta egin eban guztia
ona zala ikusi eban Jainkoak”

(Hasiera 1, 29-31).



ESKERTZEN ZAITUGU

Gure Lur amagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Zeru-itsasoagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Pizti-abereekin – *Eskertzen zaitugu*
Lore-landarakaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bete soloak frutuz – *Eskatzen deutsugu*
Zelaiak bedar, lorez – *Eskatzen deutsugu*
Izadia ederrez – *Eskatzen deutsugu*
Zeu zerbidu zaiguzan – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Bihotz-haundi eta eskuzabal zaitugun Aita Jainko maitagarria! Dana geuretzat emon deuskuzu eta geu Zeuretzat egin. **BEDEINKATU** eizu, arren, gure eskuetan itzi deuskuzun lur hau; gure izerdiz eta zure euriz eta beroz lagunduta, emon deiskula frutu gozo ugaria. Lurraren magaletik Zeu Aitatzat ezagutu eta bedeinkatu zaiguzala etenbarik.

AGURRA

Alkarren bizilagun garan adiskideok: Jainkoak geure esku itzi deuskuzan ondasunak eskerronez hartu eta arduraz erabili daiguzala; alkarrengandik banatzeko barik, alkarlanean landu eta alkarbananduz aprobetxatu daiguzala. Hori da eskatu dogun bedeinkapenaren ezaugarriarik ziurrena.

27

**KRISTAU ZERBITZARIEN
BEDEINKAPENA**

Mendiak ez dau mendia behar, baina gizonak bai gizona. Alkarren beharrea sentitzeak alkar zerbitzera eroan behar gaitu; eta besteengandik zer hartuko zain egon barik. Alkarri zor deusagun maitasun-zorra ordaindu guraz; eta hori hutsean, doan. Mila eratako zerbitzuak eta zerbitzariak doguz gure artean. Jaunaren bedeinkapen-eske gatoz, gure arteko maitasun-iturri hori agortu ez dadin.

“Zuek ez jokatu horrela. Zuen artean nagusiena izan bedi gazteen pareko, eta agintaria zerbitzariaren pareko. Zein ete da haundiago, mahaiian dagoana ala zerbitzen diharduana? Ez ete da mahaiian dagoana? Bada, Ni zerbitzari lez nago zuen artean”

(Lukas 22, 26-27).



ESKERTZEN ZAITUGU

Egile zaran Aita – *Eskertzen zaitugu*

Seme Salbatzailea – *Eskertzen zaitugu*

Espiritu Ongile – *Eskertzen zaitugu*

Jainko maitale fina – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Zaindu zerbitzariak – *Eskatzen deutsugu*

Bedeinka euron lanak – *Eskatzen deutsugu*

Gehitu zerbitzariak – *Eskatzen deutsugu*

Saritu zerbitzuak – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Doan eta ezingehiago maite gaituzun Jaungoiko ona! Gizon-emakumeengan banatzen dozuz zure bihotzeko dohaiak. Euron bitartez agertzen zara maitekor eta maitagarri. **BEDEINKATU** eskuzabalez zure zerbitzariok, euren maitasun-zerbitzuan aspertu ez daitezana; euron testigantzaz, beste asko ere prestatu daitezana zure erruki-egintzak banatzera. Gu geu guztiok ere bedeinkapen bardinez sendotu gaizuz.

AGURRA

Senideok: gaurko bedeinkapena bai dala Jesus Zerbitzari Nagusiaren gogokoa! Bera izan zan bizia emoteraino heldu zan Zerbitzaria. Bere Espirituak lagunduta, bizi garan lekuetan maitasun-zerbitzuen banatzaile izan gaitzezala. On eginez, ondo bizi!

28

SAN ANTON EGUNeko BEDEINKAPENA

Kristau fedeko anai-arrebok:

Santuen artean etxekoena San Anton dogu, baserri-inguruetan batez ere. Bere ondoan txarritxo eta guzti, abereen zaindari dogula agirian dago. Horregaitik banatzen dira San Antonen eleizetan bedeinkatutako ogia, ura, etabar, gero etxe-ganaduei emoteko. Gu ere uste horretan alkartu gara gaur hemen.

“Jaungoikoak esan eban:

«Emon begiz lurak izaki bizidunak, bakoitza bere motakoa: abere, narrazti eta piztiak, bakoitza bere motakoa.»

Eta halantxe izan zan.

Beraz, Jaungoikoak pizti, abere eta narraztiak egin ebazan, bakoitza bere motakoa. Eta Jaungoikoak ondo egoala ikusi eban”

(Hasiera 1, 24-25).



ESKERTZEN ZAITUGU

Arrain ta txoriekin – *Eskertzen zaitugu*

Abere, piztiekin – *Eskertzen zaitugu*

Euren kantu ta soinu – *Eskertzen zaitugu*

Geuk danen izenean – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUSUGU

Bedeinka bizidunak – *Eskatzen deusugu*

Ta gu euren lagunok – *Eskatzen deusugu*

Arduraz zaindu eizuz – *Eskatzen deusugu*

Osatu ta ugaritu – *Eskatzen deusugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Gauza guztien Egile zaran Jainko Jauna! Miragarria da zure ahalmena, hainbeste motatako abere, pizti, narrazti eta hegazti sortu dozuzala ikusita. Eta guztiak geure menpe itzi deuskuzuz, geure zerbitzurako. Eskerrak emonez gainera, eurok **BEDEINKATU** daizuzala eskatzen deusugu: emoiezu indarra, bizilagun izan daiguzan, eta ugaritu eta ondu eizuz. Zure izenean maitatu eta zaindu daiguzala, egizu; eurak behar dan lez erabiliz, Zeu goratu zaiguzan.

AGURRA

Otoizlagun izan garan guztiok: Jaungoikoak arnasdun egin gaituan guztien alde eskatu dogu. Aurrean doguzan abereok bedeinkatu daizala biziemoile dogun Jainkoak. Abere-piztien abilidadeak ikus-entzutean, gogoan izan daigula euren Egile eta emoile dogun Jaungoikoa, eskerrak emonez eta bedeinkatuz. Agur eta ondo izan!

29

SAN JOAN SUAREN BEDEINKAPENA

Anai-arrebok:

Gure herriko bizitza santu-izenez eta egunez jantzita daukagu: zenbat jaiegun, zenbat auzo eta baztar santuen babe-sean! Euren artean barrukoena San Joan. Noizkoak ete dira San Joan bezperako suak, eta jaiegun goizaldeko iruntzak eta ate-ertzetako lore-txortak? Santuen bidez Jainkoa hur-hurrekoa egiten jaku, eurengan Jaungoikoa gizatasunez janzen jaku. San Joan suak alkartu gaitu herritarrok: goi-bedeinkapenaren ekarle bihurtu dakigula!

“Joanen mandatariak aldegin ebenean, Jesus Joani buruz berba egiten hasi jakon jenteari: «Zer ikustera urten zineen basamortura? Haizeak kulunkan darabilen kanaberaren bat? Zer ikustera urten zineen, bestela? Soineko apainez jantzitako gizona? Ez! Apain-apain janzten eta bigunkerietan bizi diranak jauregietan egoten dira. Zer ikustera urten zaree, ba? Profetaren bat? Bai, benetan dinotsuet, profeta baino ere haundiagoa. [...] Egia esan, ez da amaren semerik Joan baino haundiagorik»”

(Lukas 7, 24-26.28).



ESKERTZEN ZAITUGU

San Joan lagun dogula – *Eskertzen zaitugu*
Gau suaren argitan – *Eskertzen zaitugu*
Herriak bat-eginik – *Eskertzen zaitugu*
Arbasoen fedean – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka San Joan Sua – *Eskatzen deutsugu*
Biztu guban argia – *Eskatzen deutsugu*
Uxa gugandik gatxak – *Eskatzen deutsugu*
Ekar bake ta poza – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Santu bakarra zaran Jaungoiko betikoa! Gizon-emakumeengan banandu eta agertzen dozu zure santutasuna. Eurok bitarteko dirala, isurtzen deuskuzuz zure grazilaguntzak. **BEDEINKATU** eizu, arren, Su hau, San Joanen gomutaz. Eta bere sinismen-argiz eta beroz bizibarritu gaizuz; aldendu gugandik gorputzarimetako gatx guztiak, eta isuri ondasun-iruntza gure gain, zure zerbitzu santuan bizi gaitzezan.

AGURRA

Adiskideok: biztuta dago San Joan Sua, erre daizala gure arteko okerkeriak, uxatu gugandik kaltegileak eta egin gaizala geu guztiok alkarren argi eta bero. Ondo igaro San Joan jaiak!

30

SANTU-IRUDIAREN BEDEINKAPENA

Edozein gauza on bat ikusteak, nahiz entzuteak, errez garoaz Jaungoikoarengana. Izan ere, Bera da gauza on guztien sortzaile eta emoile. Santuak doguz Jaunaren lagun haundiak, eta Beraganako bidean erakusle argiak. Egoki da, beraz, gure otoitzetan euren laguntza izatea. N Santuaren irudi hau bedeinkatzera goaz; Jaunak, bere bitartez, lortu deiskula bizipoza, bakea eta osasuna.

“Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, frutu asko emotean. Aitak maite nauan lez, halantxe maite zaituet nik ere zuek; iraun sendo nire maitasunean. [...]

Hau guztia nire poza zuengan izan daizuen esan deutsuet, eta poz hori bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maite daizuela alkar, Nik maite izan zaituedan lez. Ez deutse inork maitasun haundiagorik adiskideei, bere burua euren alde emoten dauanak baino. Zuek nire adiskide izango zaree, Nik agintzen deutsuedana egiten badozue”

(Joan 15, 8-9.11-14).



ESKERTZEN ZAITUGU

Zeure aurrean ahozpez – *Eskertzen zaitugu*
Santu honen laguntzaz – *Eskertzen zaitugu*
Geugaz zagozalako – *Eskertzen zaitugu*
Bedeinkapen haugaitik – *Eskertzen zaitugu*




ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka irudi hau – *Eskatzen deutsugu*
Eta gu bere bidez – *Eskatzen deutsugu*
Emoiguzu bakea – *Eskatzen deutsugu*
Lana ta osasuna – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Santuen bizitzan hartigarri agertzen zaran Jainko Jauna! Eskerrik asko Santuen sinismenean zaintzen gaituzulako! BEDEINKATU eizu, arren, N Santuaren irudi hau, eta bedeinkapen honen grazia isuri gure etxearen gainera. Emoiguzu Espirituaren laguntza, N Santuaren antzera, Jesusen jarraitzaile zintzoak izan gaitezan.



AGURRA

Fedeko anai-arrebok: gizonen eskuz egindako santu-irudi hau bedeinkatu dogu. N Santua lez, gu guztiok ere Jesukristoren irudi biziak gara. Alkar maitatzen bizi gaitezala, batez ere, gaixo eta behartsuak, eurengan Jesusen irudi bizi benetakoa ezagutuaz. Horixe izango da bedeinkapen honen fruturik ederrena. Ondo bizi!

31

**ERROSARIO SANTUAREN
BEDEINKAPENA**

Senideok:

Gure artean nor ez da Andra Mari zale? Txikitatik jaso dogu debozino gozo hau gure famulietan; batez ere, Errosario Santua errezatuaz. Lagunarteko giroan eta fedeko misterio nagusienak gogoan erabiliaz, Jesusegaz eta gure zeruko Amagaz alkartzen gara otoitzean. Errosario hau bedeinkatzeak biztu daiala gugan, ahal dan gehien eta ondoen errezatzeko gogoia eta bere antzera Jesusi jarraitzeko asmo bizia.

“Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak ohi daben lez, euren berbajarioz Jainkoak entzungo deustela uste dabe-eta. Ez izan euren antzeko, zuen Aitak badaki-eta zeren beharrizana dozuen, zuek eskatu baino lehen. Zuek egizue otoitz honela: «Gure Aita zerukoa, agertu santu zure Izena, etorriazo zure erregetza; beteazo lurrean zure nahaia, zeruan betetzen dan bezela. Emoiguzu gaur egun honetako ogia, eta parkatu gure erruen zorra, guk ere gure zordunei parkatu deutsegun ezkeru; ez itzi gu tentaldian jausten, eta gorde gaizuz gaiztoagandik.»

(Mateo 6, 7-13).



ESKERTZEN ZAITUGU

Andra Mariagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Hain ederra dalako. – *Eskertzen zaitugu*
Geure Ama dalako – *Eskertzen zaitugu*
Mariaren bitartez – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka gaizuz, Jauna – *Eskatzen deustugu*
Otoitzean lagundu – *Eskatzen deustugu*
Zaindu gure etxeak – *Eskatzen deustugu*
Emoiguzu bakea – *Eskatzen deustugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Maria, Jesusen Amatzat, hain ederra sortu zenduan Jainko Jauna! Bere babespean itzi ginduzan Jesusek gurutze-ondoan. Umetatik jaso dogu Beraganako joera gozoa. Bedeinkatzen zaitugu Mariagaz batera eta **BEDEINKATU** eizu bere debozinozko Errosario hau; bera eskuetan dala eta otoitzaren indarrez zure laguntza ugariak jadetsi ahal daiguzan orain eta heriotzako orduan.

AGURRA

Senideok: bedeinkatu doguz Errosarioak; orain Errosarioaren bidez otoitz eginaz, Jaunaren bedeinkapen ugariak agertu daitezala gure famili-bizitzan. Errosarioko garauak atzamar artean erabiliaz, gure eguneroko egintzak ere Jaunaren gogokoak izan daitezala. Andra Mariak lagun deigula!

32

GURUTZE-IRUDIAREN BEDEINKAPENA

Senideok:

Jesukristoren gurutzeko herio-
tzeaz berrerosiak gara; hil eta
berbiztuak salbatu gaitu, eta
betiko bizitzarako irabazi. Eske-
rrik haundienak zor deutzoguz
Berari; horregaitik, Jesusen
gurutze-irudia bedeinkatzea
guretzat pozgarri da. Bedeinkatu,
gurutzea Jesusek Berak bedeinkatu
eban; guk, haren gomuta-
garri jakun irudi hau bedeinka-
tzen dogu, gure etxeko edergailu
eta ezaugarririk goralgarriena izan
dadin.

“Kristorekin batera gurutzeraturik nago,
eta honezkero ez naz ni bizi, Kristo bizi
da nigan. Eta oraingo nire giza bizitza,
maite izan ninduan eta bere bizia nire
alde eskeindu eban Jainkoaren
Semearenganako sinismenean oinarriturik
bizi dot”

(Galaziarrei 2, 19-20).



ESKERTZEN ZAITUGU

Jesusen izenean – *Eskertzen zaitugu*
Kristau fedeagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Gugaitik hil zalako – *Eskertzen zaitugu*
Biztu zendualako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka irudi hau – *Eskatzen deutzugu*
Baita gure gurutzak – *Eskatzen deutzugu*
Gurutzedunen alde – *Eskatzen deutzugu*
Mariaren bitartez – *Eskatzen deutzugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Jesus zure Semeagan gu guztiok seme-alabatzat hartu gaituzun Jainko Aita errukiorra! **BEDEINKATU** eizu, arren, bere maitasun-agiria dan gurutze-irudi hau; eta beragaz batera, bedeinka eta onartu gure bizitzako gurutze guztiak. Jesus gurutzeratuaren ize-nean, zaindu gure sendia gatx guztietatik eta sendotu gaizuz, gurutze eta guzti, Zugana heldu gaitzean.

AGURRA

Anai-arrebok: bedeinkatu dogu gurutze-irudi hau eta beragaz eta bere bitartez gure gurutze guztiak. Onartu eta maitasunez eroan daiguzala; eta ahalegindu gaitzeala hurkoaren bizitzatik gurutzak aldenduten, edo eta eroaten laguntzen. Bedeinkatu gaizala Jaungoiko Aitak eta Semeak eta Espiritu Santuak.

33

GAUEKO LOAREN BEDEINKAPENA

Senideok:

Gaurko egunak emon dau berea. Gaueko atsedena hartzeko etxean alkartu gara. Baina gure atsedenleku gozoena Aita Jainkoaren besartea da; han hasten eta amaitzen da gure eguna eta bizia. Maitasunezko hartuemonak dan sinismenak noiznahi eta berez garoaz Aitarengana, gau askotan Jesus mendira lez: Aitari eskerrak emon, eguneko gorabeheratxoak kontau eta bere bedeinkapen zabala hartzeko.

“Etxea Jaunak egiten ez badau,
alperrik nekatzen dira etxegileak.
Uria Jaunak zaintzen ez badau,
alperrik dagoz zuhur urizainak.

Alperrik dozue goizean goiz jagi eta
berandu oheratzea, nekearen nekez ogia
irabaztea: bere adiskideei lotan dagozala
emoten deutse Jaunak!”

(Salmoak 127, 1-2).



ESKERTZEN ZAITUGU

On guztien iturri – *Eskertzen zaitugu*
Gaurko laguntzagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Lagun on danakaitik – *Eskertzen zaitugu*
Gaueko loagaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka gaizuz, Jauna – *Eskatzen deutsugu*
Zaindu gaueko loa – *Eskatzen deutsugu*
Parka gaurko okerrak – *Eskatzen deutsugu*
Eutsi gaurko eguna – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Ez iluntzerik, ez azkenik ez dozun
Jainkoa! Eguneko arazo-ardurak
amaituta, bagoaz atsedena hartzera.
Holantxe egin gaituzu Zeuk. Eskerrik
asko! Bedeinkatzen zaitugu eske-
rronez beterik, egunean zehar zure
ontasuna agertu deuskuzulako.
BEDEINKATU, arren, gaur erein
dogun hazia, frutu eder ugari bihurtu
dadin; bedeinkatu gaur gaueko loa,
gorputz-espirituz atsedean hartu
daigun, bihar bizi eta gogo barriz
zerbitzura bihurtu gaitez. Eskerrik
asko, Aita, hartu gaizuz zure besoetan.

AGURRA

Senideok: zein ederra dan fededun izatea,
Jainkoagaz hartuemonean bizitzea! Egun
honetan alkarri hutsik egin badeutsogu,
bihotz osoz alkarri parkatuta, bakezko loa
izan daigula. Ondo lo egin eta bihar arte,
Jainkoa lagun!

34

IKURRINAREN BEDEINKAPENA

Anai-arrebok:

Guztiok gagoz lurralde bati lotuta munduan, geure sorterriari. Aberri horretako seme-alaba lez, maite doguz bertako berbeta, ohitura, ikurrina eta baztarrak. Abertzalea izatea, geure izatearen zati on bat da. Gaur ikurrina hau bedeinkatzean, gu Euskal Herrian sortu, eta jaiotea nahi izan dauan Jainkoa goratzen eta eskertzen dogu. Eta, bide batez, bere bedeinkapenik onenak ikurrinarentzat eta berak adierazoten dauan aberriarentzat eskatzen. Jainkoa, aberri guztien Jainkoa da, Euskal Herriarena ere bai.

Emoiguzu, bada, zure eritzia:
Zilegi al da Zesarri zerga ordaintzea,
bai ala ez?» Harein maltzurkeria igarrita,
Jesusek esan eutsen:
«Zergaitik zatorkidaze zirika itxurazaleok?
Ea, erakutsi zerga-txanpona.»
Hareik denario txanpona aurkeztu eutsoen.
«Norenak dira irudi eta izen honeik?»
«Zesarrenak.»
Jesusek orduan:
«Emon, bada, Zesarrena Zesarri eta
Jainkoarena Jainkoari»
(Mateo 22, 17-21).



ESKERTZEN ZAITUGU

Aita zaitugulako – *Eskertzen zaitugu*
Euskaldun garalako – *Eskertzen zaitugu*
Egun eder haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Alkarlaguntzagaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka ikurrin hau – *Eskatzen deuntsugu*
Zaindu gure Herria – *Eskatzen deuntsugu*
Emoiguzu bakea – *Eskatzen deuntsugu*
Gorde gaizuz fedean – *Eskatzen deuntsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Enda eta herrialde guztien sortzaile eta Aita zaitugun Jainkoa! **BEDEINKATU** eizu, arren, ikurrin hau, eta beragaz batera, gure herriko berbeta, ohitura, ondasun eta arduradunak. Zabaldu gure begi-bihotzak, besteenak onartuz, geureak zaindu eta banatzeko gai izan gaitezak. Gizaldietan eskuzabalez bedeinkatzen dozun Euskal Herria babestu eizu zeure betiko ontasunez, eta iraun daiala beti Zuganako leialtasunean eta alkarregazko onarpenean.

AGURRA

Adiskideok: gure ezaugarri dan ikurrina bedeinkatu dogu. Bedeinkapen honek onez bete gaizala geu ere, Herriko seme-alaba leial izan gaitezak; alkar onartuz, alkarlanean gogotsu jokatu daigula, gure Herrian Jainkoaren Erreinuko zuzentasuna eta batasuna sendotu daitezak. Egun on izan guztiok!

35

EGUN BARRIAREN BEDEINKAPENA

Gure sinismenaren argitan, Jainkoaren aurrean beti dogu bihotza zabalik, bai Jauna bedeinkatzeko, bai bere bedeinkapenak hartzeko. Egun barri baten hasierea da aukerako ordua, Jaunagazko hartuemon bizi bero bat izateko. Azken baten, geuri bizi-arnasea emonaz, Berak luzatzen deusku bizia. Goizeko otoitzalditxo egiten lagungarri izango jatzu bedeinkapen hau. Bakarrean, nahiz alkartean egin daiteke.

“Ez arduraz ibili bizi izateko zer jango dozuen, ezta gorputza zerez jantziko dozuen ere. Ez da bizia janaria baino baliotsuago, ala? Eta gorputza, jantzia baino? [...] Zuetarik nork, barriz, ahalegin guztiak egin arren ere, luzatu ete daike bere bizia ukondo bat? [...] Bilatu eizuez lehenen Jaungoikoaren Erreina eta Haren zuzentasuna, eta gauza guztiok gainezka emongo jatzuez. Ez estutu, ba, biharkoari buruz; biharkoak berak izango dau bere buruaren ardurea. Egunari nahikoa jako bere arazoa”

(Mateo 6, 25.27.33-34).



ESKERTZEN ZAITUGU

Bizidun danon Aita – *Eskertzen zaitugu*
Egun barri haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Gaueko loagaitik – *Eskertzen zaitugu*
Fededun guztiekaz – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Zaindu gure bizia – *Eskatzen deutsugu*
Gaur bedeinkatu gaizuz – *Eskatzen deutsugu*
Emon bake ta poza – *Eskatzen deutsugu*
Eguneroko ogia – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Bizitzaren sorburu eta helburu zaitugun Aita Jainkoa! Lurbira-guztiko seme-alabakaz bat-eginda, lotatik jagiaz batera, gogo beroz eta bihotz zabalez goratzen, eskertzen eta bedeinkatzen zaitugu. BEDEINKATU arren, Zeuk ere egun barri hau, guretzat baketsua eta onegitez bete izan dadin. Argitu gure adimena, Zeu izan zaiguzan bidelagun; berotu gure bihotza, eguneroko gurutzea zeure Semearen aintzera eroan ahal daigun; bedeinkatu gure esku-oinak, zure bideetatik ibiliz, bedeinkapen-banatzaile izan ahal gaitezcan egunean zehar.

AGURRA

Senideok: egun barria, Jaunaren maitasun-ezaugarri agiria. Egin deuskun mesede hau egintza onez beterik bihurtu daiogula gauez lotarakoan. Alkarren bizilagun garanok alkarren zerbitzari ere izan gaitezala. Jainkoaren izenean, egunon bihotzez!

36

MAHAIAREN BEDEINKAPENA-1

Senideok:

Mahai-inguruan ondo hazi eta hezi danak badau bizipoza eta bizi-indarra. Etxeko mahaitik lantegiko mahaira, eta handik barrero etxeko mahaira. Jan nahi dauanak lan egin behar, holan ez balitz, ez gintzatekez zuzen ibiliko. Mahaian bizia jokatzen dogu: laneko izerdiz bustitako ogia bedeinkatu daijala Jaunak.

“Zure bekokiko izerdiz
jango dozu ogia,
lurrera bihurtu arte,
handik izan zara hartua-eta”

(Hasiera 3, 19).



ESKERTZEN ZAITUGU

Biziaren Jainkoa – *Eskertzen zaitugu*

Daukagun lanagaitik – *Eskertzen zaitugu*

Jan-edariokaitik – *Eskertzen zaitugu*

Geugaz zaitugulako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Langile danen alde – *Eskatzen deutsugu*

Gaixoen izenean – *Eskatzen deutsugu*

Janak on egin deiskun – *Eskatzen deutsugu*

Geu bat-izan gaitezan – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Geugaz munduan lankide zaitugun Aita Jainkoa! Guk izerdiz landuten dogun lurra Zuk euriz beratu eta eguzkiz berotzen dozu, eta gero gu hango frutuz biziazoten gaituzu. **BEDEINKATU**, arren, mahaiko gure nekelanen frutua. Izan bedi geure onerako eta zure aintzarako.

AGURRA

Senideok: jan-edan daigun, bitartean bizitzan alkarlagunduaz. Mahai batean alkartzeak gure gogo-bihotzak ere batuago egin daizala.

37

**MAHAIAREN
BEDEINKAPENA-2**

Senideok:

Gizartean mahai asko dira eta guztiak ezbardinak, bakoitzak dau bere betebeharra. Danetan gozoena eta beroena etxe mahaia. Horrek egiten gaitu danok etxe bateko senide. Adiskide kutunai ere etxe mahaia deitzen jake; orduan auzokoak ere etxe. Holako mahai zabalak ugaritzen direnean, auzokoak etxe dira, eta etxeak auzoko. Danentzako mahaia eta etxea: horixe da Jaungoikoaren Erreinuko mahaia.

“Txiki honeetako bati, nire ikasle dalako, ontzitxo bete ur fresko, besterik ez bada ere, emoten deutsona, benetan dinotsuet, ez dala saririk barik geldituko”

(Mateo 10, 42).



ESKERTZEN ZAITUGU

Auzotar guztiekaz – *Eskertzen zaitugu*

Senideok batera – *Eskertzen zaitugu*

Alkar maite garanok – *Eskertzen zaitugu*

Poz osasunagaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Zaindu etxe ta auzo – *Eskatzen deutsugu*

Egin gu eskuzabal – *Eskatzen deutsugu*

Errukiz bete gaizuz – *Eskatzen deutsugu*

Zabal gure atear – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Geure indarrak barriztatera alkartu gara, Jauna. Eta Zutaz gomutau gara. **BEDEINKATU**, arren, gure mahaia; gorputzagaz batera, sendotu daitela gure gogoa ere, lanean eta on egiten aurrera egiteko. Zeu gugaz zaran lez, geu ere izan gaitetzala eskuzabal alkarregaz; batez ere, beharizanean dagozanakaz. Ahaleginez, ez daitela gure inguruko mahaietan zer janik falta.

AGURRA

Jan-edan dogu batasunean, Jainkoari esker-rak. Orain barriro goaz lanera indarbarrituta. Janean lez, lanean ere Jauna goratu daigula, anaitasunez jokatuaz. Hurrengo mahaietan alkartu arte, ondo ibili!

38

MAHAIAREN BEDEINKAPENA-3

Senideok:

Mahaiaren inguruan asko batzen gara: etxeko eta adiskide, lurreko eta zeruko. Halakoxe zabala da danon Aitaren bihotza, halakoxea behar leuke izan gure mahaiak. Begibistan ez izan arren, hor zehar bananduta dagozan senideak eta Aitak betiko Etxera eroan deuskuzanak ere gogoan doguz mahai-inguruan. Mahai-buru dogun Jaunak bedeinkatu gaizala guztiok, eta bere bihoztean mahai bateko senide egin.

“Eta Jesusek esan eutsen:
«Baneban gogoan, sufridu aurretik,
Pazko afari hau zuekin egiteko!
Egia esan, ez dot gehiago
Pazkorik ospatuko, Jainkoaren Erreinua
bere betera heldu arte»”

(Lukas 22, 15-16).



ESKERTZEN ZAITUGU

Hemen mahaiari batuta – *Eskertzen zaitugu*
Zeruko santuekazu – *Eskertzen zaitugu*
Alkar maite dogu ta – *Eskertzen zaitugu*
Itxaropen haugaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Senide danen alde – *Eskatzen deusugu*
Gure hildakoen alde – *Eskatzen deusugu*
Danok babestu gaizuz – *Eskatzen deusugu*
Gero alkartu gaizuz – *Eskatzen deusugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Senitarteko sinismen eta maitasunean erakutsi deuskuzu zure ontasuna, Jainko Aita! Bizibeharrak banatzen gaituanok Zeuk BEDEINKATU gaizuz eta zaindu. Eta Zeuk dakizun orduan eta lekuan —baina zeure ondoan— alkartu gaizuz betiko mahaiaren. Gure Salbatzaile dogun Jesusen izenean eskatzen deusugu.

AGURRA

Senideok: senitarteko mahaiak alkartu eta indabarritu gaitu barriro. Gorputzez ez bada ere, maitasunez eta bihotzez mahai betea izan gara. Esperientzi honek gehitu daijala gudan senide-espirtua, bakegile izan gaitezana. On egin!

39

**MAHAIAREN
BEDEINKAPENA-4**

Zenbat sukalde eta mahai herrian, harenbeste oholez osoturiko mahaiak izan behar litzateke parrokiako aldare mahaiak. Izan ere, aldare mahaiak beste mahai guztiekaz bat-eginda egon behar dau. Izan, etxea da oinarritzko eleizea, eta kristau etxeko mahaiaren osagarri izan behar dau eleizakoak. Alkarri ondo lotuta badagoz, beste mahai guztietarako ogia eta bizipoza ez da faltako.

“Ogia etxeetan zatitzen eben,
otorduak alkarregaz
pozik eta bihotz argiz eginez”

(Eginak 2, 46).



ESKERTZEN ZAITUGU

Zeu zaitugu janari – *Eskertzen zaitugu*
Zeu gure bidelagun – *Eskertzen zaitugu*
Zeure mahaikide gara – *Eskertzen zaitugu*
Batzen gaituzulako – *Eskertzen zaitugu*




ESKATZEN DEUTSUGU

Eleiz Amaren alde – *Eskatzen deuntsugu*
Seme-alabok zaindu – *Eskatzen deuntsugu*
Emon zure Ogia – *Eskatzen deuntsugu*
Hartu zure Etxean – *Eskatzen deuntsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Jesusen eta gure Aita zaitugun
Jaungoiko Jauna! Gure etxean jaio eta
laster, zure Etxean hartu eta bateoz
zeure bizi barrira sortu ginduzun.
BEDEINKATU, arren, jan-edari gozoz
asetzen gaituan mahai hau; eta bizi
gaitezala, domekan zure Etxeko
Mahaian pozik jezarteko moduan.



AGURRA

Senideok: bedeinkapena eskatuaz, Jauna
Bera konbidatzen dogu gure etxeko
mahaira; Berak ere konbidatzen gaitu
domekan anaiarteko mahaira. Bera gugana
badator, guk ezin deuntsagu huts egin bere
deiar. Bitartean, ondo ibili!

40

ATERPETXEAREN BEDEINKAPENA

Adiskideok:

Gizakia ez da jan eta lan, lan eta lo egiteko bakarrik; astialdi eta atsedenaldiak ere beharrezko ditu, bere barruko poz-egarriari bide emoteko eta alkarbizitzaren gozotasuna dastatzeko. Aterpetxe hau bedeinkatzea gogoko da Jainkoaren aurrean: Jauna geure artean dago, otoitz eta lanerakoan lez, atsedenean eta jolasean ere.

“Horretan, gizon bi agertu ziran, aintzaz disdiratsu: Moises eta Elias, eta Jesusegaz berbetan ziharduen Jerusalemenean jazotekoa zan Honen heriotzaz. Pedro eta lagunak loguraz jota egozan; baina itzartu ziran eta Jesusen aintza eta Haregaz egozan gizon biak ikusi ebezan. Honeek aldegitan, Pedrok esan eutson Jesusi: «Maisu, bai ederto gagozala hemen! Zergaitik ez egin hiru txabola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat?»”

(Lukas 9, 31-33).



ESKERTZEN ZAITUGU

Poz-iturri zarana – *Eskertzen zaitugu*
Alaia zaralako – *Eskertzen zaitugu*
Aterpetxe haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Gaurko egun haugaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka aterpetxe hau – *Eskatzen deutsugu*
Eta arduradunak – *Eskatzen deutsugu*
Babestu gure lanak – *Eskatzen deutsugu*
Zaindu gaizuz guztiok – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Beti pozik ikusi nahi gaituzun Aita Jainkoa! Gure ondoan irribarrez sentitzen zaitugu, geugaz batera aterpetxe hau bedeinkatzen. Eskuza-balez BEDEINKATU eizu, ume eta gazte askorentzat bizileku, eskola eta eleiza izan daiten. Aldendu gatx eta txar guztiak eta isuri zure dohairik onenak. Zabal dadila hemendik leku guztietara bizipoza, bakea eta alkarlanerako gogo.

AGURRA

Adiskideok: bai, Jaungoikoari asko ardura deutso holako aterpetxe batek. Bizitzaren aldeko ekintza guztiak bihotz-erdian ikututen deutsoe. Bedeinkapen honen zabaltzaile izan gaitezala leku guztietan. Pozik bizi!

41

ALKARTE BATEN EGOITZAREN BEDEINKAPENA

Adiskideok eta N Alkarteko kideok:

Egun pozgarria Alkarteko lagun guztiontzat eta gaur zeuokaz alkartu garanontzat. Ondo izan eta on egiteko alkarreak bedeinkagarriak dira; Jaunak gogoko ditu. Onartu daiala Berak gaurko otoitzaldi hau eta isuri begiz eskubeteen bere bedeinkapenik gozoenak beragan.

“Zuek zaree munduarentzat argia. Ezin daiteke ezkutatu mendi gainean dagoan uria. Kriseilua ere ez da biztuten ontzipean ipinteko, argimutilaren gainean baino, etxeko guztiei argi egiteko. Era berean, zuen argiak danen aurrean egin behar dau argi, zuen egintza onak ikusiaz, zeruko zuen Aita goratu daien”

(Mateo 5, 14-16).



ESKERTZEN ZAITUGU

Lagunarte haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Mesede danakaitik – *Eskertzen zaitugu*
Hain ona zara lako – *Eskertzen zaitugu*
Txoko gozo haugaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinka Alkarte hau – *Eskatzen deutsugu*
Eta bere egoitza – *Eskatzen deutsugu*
Lagundu on egiten – *Eskatzen deutsugu*
Ondo izan daitezcan – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Bai jolasean eta janean, bai otoitzean eta lanean seme-alabok alkarregaz ikusi nahi gaituzun Aita ona! **BEDEINKATU** grazi ugariz N Alkartearen egoitza hau. Alkartekideen gozamerako izan dadila, eta beste askori on egiteko. Egizu Alkarte honen eragina ezagutu daitela ingurukoen bizipoz eta bake giroan.

AGURRA

Anaiok: zuen ahalegin eta lanak bedeinkatu ditu Jaunak. Hemendik aurrerako batzar eta jolasaldiak ere izan daitezala bedeinkapen honen ezaugarri. Bakezko eta alaitasunezko topaketa-leku izan bedi. Zorionak!

42

ZIDARREZKO-URREZKO EZTEGUEN BEDEINKAPENA

Senideok:

Kristau fedearen eraginak beti jasoten deusku bihotza Jaunagana, bizitzako gorabehera guztietan Bera beti gure arduraz daukagu-eta. N eta N zorion-bitsetan dagoz. Ez al da nahiko arrazoi eurakaz alkartuta, Jainkoa bedeinkatzeko, eta euren gan bedeinkapen gozoenak sortu daizala eskatzeko? Eta euren gan bizipoza eta itxaropena gehitu daizala Jaunari eskatzeko?

“Nazino haundi egingo zaitut.
Ospetsu bihurtuko dot zure izena.
Bedeinkatuko zaitut,
eta bedeinkazino-iturri izango zara.
Bedeinkatzen zaituana
bedeinkatu egingo dot;
madarikatzen zaituana, barriz,
madarikatu.
Zure bitartez bedeinkatuko ditut
lurreko herri guztiak”

(Hasiara 12, 2-3).



ESKERTZEN ZAITUGU

Aita guztien Aita – *Eskertzen zaitugu*
Bizidunen sorburu – *Eskertzen zaitugu*
Bikoteaz batera – *Eskertzen zaitugu*
Alkar maite dira ta – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bikote honen alde – *Eskatzen deutsugu*
Euren senideen alde – *Eskatzen deutsugu*
Emon bake osasun – *Eskatzen deutsugu*
Zaindu aititamamak – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

On guztien iturburu Zu zara, Jainko Jauna! Zuk isurtzen dozu gure bihotzetan Zugarako egarria eta eskerrona. **BEDEINKATU** eizuz N eta N euren ezkontzako zidarrezko (urrezko) ezteguetan. Eta eurokaz batera, bedeinkatu euren senitarte osoa mailaz-maila. Bedeinkapen-zaparrada santuak busti gaizala guztiok. Zaindu eizuz alkar-pozetan gure artean luzaro, guretzat zure bedeinkapen ekarle izan daiguzan.

AGURRA

Senideok: N eta Ngaz batera, parte izan gara bedeinkapenean. Iraun daijala bedeinkapen honen graziak euren bien artean eta gure bihotzetan, gu geu izan gaiezan bedeinkapen-lagun zintzo.

43

**BATEATUBARRIAREN
BEDEINKAPENA**

Senideok:

Bateatzea bera ez al da nahiko bedeinkapen? Bai, eta ederragorik ez dago beste bat. Baina hain gauza eder haugaitik Jaungoikoa bedeinkatzea eta pitxi eder hau alperrik galdu ez daiten, bedeinkapen berezia eskatzea ez al da egoki? Horixe egitera goaz N bateatubarriaren guraso eta senideekaz batera.

“Herri guztia bateoa hartzen ziharduan artean, Jesus ere bateatuta eta otoitz egiten jarrita, zerua zabaldu zan, eta gorputz-irudiz, uso-itxuraz, Espiritu Santua jatsi jakon. Eta berbots hau etorri zan zerutik: “Zu neure Seme maitea zara, Zeugan dot nire atsegina.”

(Lukas 3, 21-22).



ESKERTZEN ZAITUGU

Ume barri haugaitik – *Eskertzen zaitugu*

Bateatu dalako – *Eskertzen zaitugu*

Zeurea dozulako – *Eskertzen zaitugu*

Beragan zaozalako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Umetxo honen alde – *Eskatzen deutsugu*

Bedeinka eizu N – *Eskatzen deutsugu*

Zaindu bide onean – *Eskatzen deutsugu*

Geu lagun on gaitezan – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Jesusengan seme-alabatzat hartzen gaituzun Aita ona! Bedeinkatzen zaitugu N umearen izenean. BEDEINKATU eizu eskubetea, Jesusengan seme (alaba) egin dozun hau. Eskerrik asko bere bateoko bizi barriagaitik. Zaindu beti Zeuganako bide garbian. Bedeinkatu, beragaz batera, bere guraso, aitita-amama eta senide guztiak.

AGURRA

Senideok: izakirik maitagarriena dogu umetxoa, areago bateatubarria dalarik. Ezin dogu inondik inora ondasun baliotsu hau alperrik galtzen itzi. Gorputzez eder osasuntsu hazi daitela, eta espirituz garbi eta zuzen. Zentzun-argira itzartzean, ikasi daijala gugandik zer dan jainkoseme (alaba) izatea.

44

SENDOTUBARRIAREN BEDEINKAPENA

Haziaz doan gizakiak gero eta arrisku haundiagoak aurkitzen ditu bidean, bere heldutasunean aurrera egiteko. Horregaitik, bere gazte-loretan, Sendotza Sakramentuaz babestu dau Espiritu Santuak: gorputzez baizen sendo eta lerdin hazi daiten gogo-zentzunez ere. N gazteagaz bat-egiten dogu, bedeinkapen-eske Jaunaren aurrean.

“Jaungoikoaren Espirituak darabiltzanak Jaungoikoaren seme dira. Zuek hartu dozuen bihotza ez da morroi-bihotza, lehen lez bildurrez ibiltekoa; semetzako bihotza hartu dozue, eta honen indarrez

Jaungoikoari «Abba, Aita» egiten deutzazue dei. Espiritu Santuak berak dinotso gure bihotzari Jaungoikoaren seme garala. Seme bagara, barriz, oinordeko ere bagara; Jaungoikoaren oinordeko gara, izan ere, eta Kristoren oinordekide: Haregaz goratuak izateko hartzen doguz nekeak-eta”

(Erromatarrei 8, 14-17).



ESKERTZEN ZAITUGU

Gazteen bihotz sutsuz – *Eskertzen zaitugu*
Zuk hain maite dozuz ta – *Eskertzen zaitugu*
Espiritua lagun – *Eskertzen zaitugu*
Sendoturik dago ta – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinkatu gazte hau – *Eskatzen deutsugu*
Arriskuan babestu – *Eskatzen deutsugu*
Zeugana deitu eizu – *Eskatzen deutsugu*
Zure testigu dadin – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Lurrez egin eta zure Espirituz zeure irudiko seme-alaba egin gaituzun Aita Jainkoa! BEDEINKATU eizu gazte hau, hartu dauan Espirituak argitu eta sendotu daiala, okerkeriaren aurrean makurtu ez daiten. Eta beragaz batera, bedeinkatu gaizuz geu ere, bere lagun zintzo eta eredu izan gaitезan. Gu guztion bitartez Espiritu Santuak eregi eta zabaldu daiala Jesusen Gorputz dan Eleiza Alkartea.

AGURRA

Senideok: kristau bizitza haziaz eta helduaz doan bizitza danez, gero eta ardura eta laguntza gehiago eskatzen deusku. Geure makaltasuna ezagutuaz, Jainkoaren bedeinkapen-laguntza eskatu dogu gazte honentzako. A ze ardura beste guztiontzat ere, gaur berak egin dauan hori, lehenago eginda daukagunontzat! Sendotu gaizala geu ere emondako baietzean. Ondo izan, Jainkoa lagun!

45

JAUNARTU-BARRIAREN BEDEINKAPENA

Senideok:

Umea dan landare dotore baizen makala! Zenbat arrisku dabezan, eta zein errez eraginda gelditzen dan bizitza osorako! Gurasoak gero eta ardura gehiago. Bera zaintzen guraso, andereino-maixu, katekista, etabar luze bat. Orduan dator Jesus Bera ere, bere lagun kutun dauan umea sendotu eta zaintzera. Jaunartu-barriaren bedeinkapen-eguna da; Bateoan hartutako bedeinkapena gehitu egin behar da, zentzun-argiz batera fedeargiz ere indartzen joan daiten.

“Gero, ogia hartu eban eta,
eskerronezko otoitza egin ondoren,
zatitu eta ikasleei emon eutsen, esanez:
«Hau nire gorputza da, zuentzat emoten

dana. Egizue hau nire oroigarri.»

Bardin egin eban koparekin

afal ondoan, esanez:

«Kopa hau itun barria da,
zuentzat isurtzen dan nire odolaz

Jainkoak ezarria»”

(Lukas 22, 19-20).



ESKERTZEN ZAITUGU

Umeekin batera – *Eskertzen zaitugu*

Maite dozuzalako – *Eskertzen zaitugu*

Zeu hartu zaituelako – *Eskertzen zaitugu*

Ume egin zinalako – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Bedeinkatu ume hau – *Eskatzen deutsugu*

Gu beragaz batera – *Eskatzen deutsugu*

Zeuk zaindu eizu garbi – *Eskatzen deutsugu*

Egin gaizuz antzeko – *Eskatzen deutsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

**Zeure burua umeekin bat egin dozun
Jainko ona! Geu ere ume lez ikusi
nahi gaituzu, harrokeria eta gogorke-
ria barik, Zugan uste osoa dogula.
BEDEINKATU N ume hau; Jesus zure
Semeagaz bat egin da Eukaristian.
Zaindu eizu gaurko umetasun garbian.
Eta gu ere ume bihurtu gaizuz zure
aurrean. Egin gaizuz ontasun-ispilu
umeentzat, eurengan Zugaz topo egin
daigun.**

AGURRA

Senideok: Jainkoak ume eta txiki nahi gaitu,
eta euren tamainuko atea jarri deusku
zeruan. Gaurko egunak gomutauazo deis-
kula gure umearoko Jaunartze-egun gozoo,
eta orduko pozez eta zorionez bete gaizala
Jaunak.

46

IBILGAILUAREN BEDEINKAPENA

Senideok, ondo etorriak!

Gizakiaren ahalmenak harrigarriak dira; eurai esker, aurrera-pauso haundiak emoten goaz teknika aldetik. Esaterako, ibilgailuetan. Gero eta aukera gehiago, lurralde barriak ikusteko, lagunak alkar topo egiteko, lantokietara joateko, alkarri mesedeak egiteko, etabar. Aurrean dogun ibilgailu (kotxea, trena, autobusa, txirrindua, motorra, itsasontzia...) honen alde Jainkoari bedeinkapena eskatzen deusugu, benetan onerako izan dadin.

“Ilunabarrean, Jesusen ikasleak itsasertzera jatsi ziran; eta txalupara igonik, itsasoaz bestekaldera joiazan, Kafarnaunera. Orduko ilunduta egoan, eta Jesus hareekana etorri barik egoan. Haizeak indar haundia hartu eban eta itsasoa harrotzen hasi zan. Bospasei kilometro arraunean egin ondoren, Jesus ikusten dabe itsas gainean ibilten eta txalupara hurreratzen, eta bildurtu egin ziran. Baina Jesusek haxe esan eutsen: «Neu naz, ez bildurtu.» Txalupan sartu nahi izan eben Jesus, eta berehala heldu zan txalupea eurak joiazan tokira”

(Joan 6, 16-21).



ESKERTZEN ZAITUGU

Mundu eder haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Ibilgailu haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Aurrerapenakaitik – *Eskertzen zaitugu*
Gure bizipozetan – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUSUGU

Bedeinka ibilgailu hau – *Eskatzen deusugu*
Bidean zaindu gaizuz – *Eskatzen deusugu*
Lagundu on egiten – *Eskatzen deusugu*
Gidari danen alde – *Eskatzen deusugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Zeure antzeko egin gaituzun Aita Ona! Zeuk emonak doguz hainbeste dohai eder, gauzak sortzen eta hobeagotzen joateko. BEDEINKATU eizu, arren, ibilgailu hau, eta batez ere, bere jabe eta lagunak. Emoiguzu zure argia behar dan lez erabilteko; eta bihotz zabala, beronegaz ahal dan on guztia egiteko. Ibilgailu honetan ere sentidu daigula zure Presentziaren poza eta bakea, batez ere, larrialdietan.

AGURRA

Adiskideok: ibilgailua lehen baizen ederra da; erabiliko dabenen alde otoi egin dogu. Gauza danak dira onak, behar dan neurrian erabili ezkeru. Bedeinkapen honek guztioi lagundu deiskula, ba, geure eskuetan dara-bilguzan gauza guztiak geure zerbitzurako eta beste askoren onerako izan daitezana. Agur, eta ondo ibili, Jainkoa lagun!

47

KIROLDEGIAREN BEDEINKAPENA

Adiskideok:

Kirola, jolasa, denporapasa, mila eta bat joko-mota, hau guzti hau giza izatearen alderdi ahaztue-zinekoa da; gure eguneroko bizitza-arentzat koipegarri bihurtzen da. Gizakia ez da lan-tresna hutsa eta latza; jolas ere egin behar dau, atsedena hartuaz batera. Lanaren astuna arindu eta gozatu beharra, bizitzaren ilunpeak argitu eta alaitu nahia. Jainkoak ez dauka lanagaz bakarrik zerikusia, baita kirol-jolasagaz ere: nahiago dau gu jolasean pozik ikustea, negarrez nekepean baino. Hagaitik batu gara gaur, kiroldegi honen alde bedeinkapen-eske.

“Ondoren, bere ikasleei esan eutsen
Jesusek: «Horregaitik dinotsuet: Ez
arduratu bizitzeko zer jango, edota
gorputza zerez jantziko. Izan ere, bizia
janaria baino gehiago da, eta gorputza
jantzia baino gehiago. Begira beleei: ez
dabe ereiten, ez batzen; ez dauke
janaritegirik, ez garautegirik; halan ere,
Jaungoikoak jaten emoten deutse»”

(Lukas 12, 22-24).



ESKERTZEN ZAITUGU

Seme-alabok, Aita – *Eskertzen zaitugu*

Kirol ta jolasean – *Eskertzen zaitugu*

Maite gaituzulako – *Eskertzen zaitugu*

Gaur gure pozagaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Eutsi kiroldegi hau – *Eskatzen deuntsugu*

Bedeinkatu Zeuk, Jauna – *Eskatzen deuntsugu*

Gorde gaizuz bakean – *Eskatzen deuntsugu*

Zaindu gure jolasak – *Eskatzen deuntsugu*

GURE AITA...

OTOITZA

**Gauza guztiak eraz eta neurriz egin
eta emon deuskuzuzan Jainko Jauna!
Eskerronez hartzen eta eskeintzen
deutsuguz, gure bizitzaren gozaga-
rrizat emoten deuskuzuzan jolasleku
eta kiroldegiak. Jan-edanez gainera,
jolasez eta atsedenez edertu daigula
gure lurreko bizitzaldia. BEDEINKATU
eizu, arren, kiroldegi hau; gizakion
dohaien erakusleku izan dadila eta
guztien atsedenleku. Gorputz eta gogo
bizibarrituta, eguneroko gurutzeari
adorez oratu daiogun barriro.**

AGURRA

Adiskideok: kiroldegi honen alde bedeinkapena eskatzeko bat-egin dogu. Bizitza-barruan atsedeen-aldiak bilatu daiguzala, bai geure buruagaz eta bai hurkoagaz patxada ederrean topo egiteko. Lagun daiogula alkarri bizitza gozatzen eta arintzen. Eutsi goiari!

48

JUBILATU DAN BATEN BEDEINKAPENA

Anai-arrebok:

Gaur egun eragin haundia dauka nagusi baten bizitzan, bera lane-tik jubilatu dan egunak. Hainbat urtetan eguneroko lan-orduari eta nekeari kate motxean lotuta egon dana, orain norbere kasa goizetik gauera, azkenera arte. Kontu haundiz prestatuta egon ezik, noraezean gelditzeko arriskua. Merezi dau Jaunaren bedeinkapen berezia eskatzea jubilatu diranen alde; oraindik zeregin ederrik geratzen jake bizitzan! Fede-argitan, artelanik balio-tsuen egiten jarraitzeko aukera.

“Zintzoa palmondoa lez haziko da,
Libanoko zedroak lez egingo dau gorantz;
Jaunaren etxean landaturik,
geure Jainkoaren ondoan haziko da.
Zahartzaroan ere frutua emongo dau;
mardul eta gordin iraungo dau beti,
Jauna zuzena dala iragarteko,
nire Harkaitza, gaiztakeriarik bakoa”

(Salmoak 92, 13-16).



ESKERTZEN ZAITUGU

Zu gure Jaun ta Jabe – *Eskertzen zaitugu*
Jubilatu honekin – *Eskertzen zaitugu*
Sari gozo haugaitik – *Eskertzen zaitugu*
Bizitza danagaitik – *Eskertzen zaitugu*



ESKATZEN DEUTSUGU

Jubilatuen alde – *Eskatzen deusugu*
Emon zure egarria – *Eskatzen deusugu*
Zaindu martxa barrian – *Eskatzen deusugu*
Lagundu bizipozez – *Eskatzen deusugu*

GURE AITA...

OTOITZA

Gure bizitzako barri geuk baino ere hobeto dakizun Jaungoiko Aita ona! Urte askotan izan gara alkarren lagun. **BEDEINKATU**, arren, gure senide jubilatutik honen bizitzako atal eder hau. Hemendik aurrera asti gehiago dauka Zurekin egoteko, lagunekin alkartzeko, jolastu eta ibilteko. Baita, eta batez ere, besteen alde zertxobait egiteko. Eskerrik asko aukera eder haugaitik! Bete-betea bizi daie la erregaluz luze den denbora azkenaldia hau.

AGURRA

Senideok: zein grazi handia dan nagusiak, euren urte eta guzti, frutu eder gozoa emoten ikustea! Eurak dira etxeko eta auzoko bakegile eta ongile; eurak ondorengoan pozgarri eta eredu. Lagundu daio gula bere bizitza-atal hau bakez eta pozik bizitzen, bere esperientzi aberatsa jasoaz eta bere ondoan umorez eta maitasunez jokatuaz. Zorionak jubilatuz saritu zaituen hori! Ondo izan eta on egin!

*Aita Jainkoa, kristau talde hau
 aurrean abuzpez daukazu,
 Jesusen bidez datorkizu ta
 arren, egiozu kasu.
 Seme-alabok goraka gagoz:
 "Aita, bedeinkatua Zu!"
 Ona zara ta eskuzabalez
 zerutik Zeuk bedeinka gu,
 alkar maitatzen ta bedeinkatzen
 bizi gaitazan Zu ta gu.*

A. Martzel



AURKIBIDEA

Bedeinkatu	9
Liburu hau egoki erabilteko argibideak	14
1. Andra Mariaren irudiaren bedeinkapena	19
2. Jan-edarien bedeinkapena	22
3. Jatetxearen bedeinkapena	25
4. Gaixoaren bedeinkapena	28
5. Ezkonbarrien bedeinkapena	31
6. Ume jaiobariaren bedeinkapena	34
7. Umedun dagoan ama baten bedeinkapena ...	37
8. Gazte maiteminduen bedeinkapena	40
9. Bidaia luze baten aurrean bedeinkapena	43
10. Hilzorian dagoanaren bedeinkapena	46
11. Bizilekuaren bedeinkapena	49
12. Kale edo auzunearen bedeinkapena	52
13. Bidearen bedeinkapena	55
14. Zubiaren bedeinkapena	58
15. Eleizaren bedeinkapena	61
16. Bulegoaren bedeinkapena	64
17. Herriko nagusien egoitzaren bedeinkapena ...	67
18. Ama barri izan danaren bedeinkapena	70
19. Gaixoetxearen bedeinkapena	73
20. Ikastetxearen bedeinkapena	76
21. Iturriaren bedeinkapena	79
22. Edozein lanabesen bedeinkapena	82
23. Edozein beharleku txikiren bedeinkapena	85
24. Lantegiaren bedeinkapena	88
25. Umeen bedeinkapena	91
26. Solo-landen bedeinkapena	94
27. Kristau zerbitzarien bedeinkapena	97
28. San Anton eguneko bedeinkapena	100
29. San Joan suaren bedeinkapena	103
30. Santu-irudiaren bedeinkapena	106

31. Errosario santuaren bedeinkapena	109
32. Gurutze-irudiaren bedeinkapena	112
33. Gaueko loaren bedeinkapena	115
34. Ikurrinaren bedeinkapena	118
35. Egun barriaren bedeinkapena	121
36. Mahaiaren bedeinkapena-1	124
37. Mahaiaren bedeinkapena-2	127
38. Mahaiaren bedeinkapena-3	130
39. Mahaiaren bedeinkapena-4	133
40. Aterpetxearen bedeinkapena	136
41. Alkarte baten egoitzaren bedeinkapena	139
42. Zidarrezko-urtezko ezteguen bedeinkapena ...	142
43. Bateatubarriaren bedeinkapena	145
44. Sendotubarriaren bedeinkapena	148
45. Jaunartu-barriaren bedeinkapena	151
46. Ibilgailuaren bedeinkapena	154
47. Kiroldegiaren bedeinkapena	157
48. Jubilatuta dan baten bedeinkapena	160